

ttipi ttapa

2002ko urtarrilaren 10 • XXII. urtea



**Joxe Luis Eskudero
Eratsungo alkatea** 03

Bi aldiz zinegotzi eta azken legealdian Eratsungo alkate da Eskudero. Bere ustez, «herri ttikok ez baditugu zaintzen berehala zahartu egiten dira».



**Unai Arzallus,
TAU-ko leitzarra** 24

18 urte eta 2,03 metroko altuerar. Pibot leitzarrak Tau-Baskoniako talde nagusiarekin jokatu du, baina «euskalduen zaila du gu talde honetan jokatzea» dio.



**04 Gorreria:
Ikusten ez den ezintasuna**

ORDOKI

ALTZARIAK

Estilo ugariko mobleak
kortinak, lanparak... eta etxerako osagarriak




Larunbat
goiz eta
arratsaldez irekia



Orain erakustoki berria. Etorri gure modeloak erosoa go ikustera.

ERAKUSKETA: Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26 • SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 948 637780 • NA-31780 LESAKA



Bidali
ttipi-ttapa
herritik kanpo
bizi diren
lagun edo familiakoei

Bakar bakarrik bidaltze gastua
ordaindu behar da
Eskatu informazioa

⌚ (+34) 948 631188

DATUAK...

• 50 urte ditu Etxeberriak Jose Luis Eskuderek. Aurrez bi alidiz Eratsungo zinegotzi izan da eta azken legealdi honetan alkate da. «Horri ttiki hauek normala da, jende gutti izaten gara eta herriarentzako lanean aritzea suertatzen da».

• Horri apartatua izanagatik, ez da langabezi arazorik Eratsunen: «Lanak egiteko ez dazu inor libre harrapatzetan... Mariakurrenarekin, Saralegirekin, batzuk Lesakara, besteak Leitzara... Ez da lan problematiko».



Jose Luis ESKUDERO *Eratsungo alkatea*

RACHEL GORI

«Ez badituzu pixko bat zaintzen herri ttikiok zahartu egiten dira»

Altz AROTZENA

Zein dira Eratsunek begibistan di-
tuen proiektu nagusiak?

Bide batzuk eta plantazioak egitea
dira asmorik importanteenak. Pasti-
zalak ere aurrera ateratzeko asmo-
arekin gabiltza. Proiektua aurkeztua
da, baina Ingrumen Departamen-
duak pixko bat gelditua du, ez dakit
zergatik, baina aurrera aterako da.
Zergustatuko litzazuke egitea kar-
gua utzi balio lehen?

Sartu nintzenean behar batzuk ikus-
ten nituen, adibidez, hilerra txukun-
tzea. Zaharra zegoen, ttikia... sartu
eta segidoan egin genuen lan hori:
5 metro koadroko hirurogeita gehia-
go partzela egin ziren, tartearen pas-
illoarekin... oso majo gelditu zaigu.
Orain gabiltza herriko gainkaldeko
paretak moldatzen. Metro aunitz egin
ditugu, zaharra bota, berria paratu,
bidea zabaldu, losa jarri... Aurrera
begira, plantazioak eta pistak, hori
da gure borroka. Horixe egiten ba-
dugu gure lana betexea izanen da.
Nola moldatzen zarete, urte buka-
eran kontuak kitatzeko?

Orain behinpein dirua negatibo dau-

«Auzolanak ongi funtzionatzen du:
batzuk eskapatu egiten dira, baina
bada jende langile eta txukuna»

kagu, eta asko gainera. Frontoi oso
politika egin da eta hori inbertsio han-
dia egin zen. Poliki-poliki ordaindu-
ko da eta badut uste heldu den urte-
rako kitto geldituko garela.

Mankomunitateak izaten ahal di-
ra, zerbitzu bateratuak eskainiz,
herri ttikiendako aterabidea?

Herri gehienetan arazo berdintsua
izanen dugu: lan aunitz eta diru gu-
txi. Bakotzak ahal dugun modura
moldatzan saiatzen gara, ahal bezala
ailegatuz. Orain, Mankomuni-
dadeak lagunbarriak dira guttieneko
zerbitzuak eskuratzeko, zaborra...
Malerrekako hortan sartuak gaude
eta kontent gaude, ez dugu kejarik.
Zer da Eratsungo alkate izatearen
alderik onena eta txarrena?

Ez dut uste txarrena denik, baina lana
egin behar da. Herri ttiki hauek
etxeak bezala dira: ez baduzu pixko
bat zaintzen zahartu egiten dira. Zain-

du, txukundu... baina horretarako be-
tikoa, dirua behar da. Dirurik ez da-
goenez, lana. Gainera, edozein gau-
za eginda ere, bizilagun guziekin ez
duzu asmatzen. Gauzarik onena, al-
di berean, egiten duzun lan hori da,
gero gustora begiratzen duzu, herri-
rako mesede dela ikusten duzu.

Dirua falta denerako, auzolanak
ere bere garrantzia izanen du...

Plan Trienalean bagenuen lan ba-
tzuk eskatuak eta ez dizkigute eman,
baina aurrera atera beharko ditugu.
Auzolanak hemen nahiko ongi fun-
tzionatzen du. Batzuk eskapatu egiti-
zen dira, baina bada jende mukuru
bat nahiko txukuna, langilea... Gusto
ta ematen du auzolana deitzeare-
kin nola etortzen diren. Adibidez, hi-
lerria dena auzolanean egin genuen.
Kanpotik begiratuta, Eratsun Re-
tegiren herria da.

Retegitarrek famatu dute herria, bai,
pilotari handiak izan baitira. Gaine-
ra, Julian zinegotzia da eta herriko
lanean ari da, horrek gustoa ema-
ten du. Guretzako Retegi bizilagun
bat gehiago da eta Eratsun gure he-
ria da, denona.



RAQUEL GÓMEZ

Elixabet Iturria arantzarra, zeinuen hizkuntza ikasten ari da Donostian. 3 urte beharko ditu ikastaroa akautzeko

JENDE GUTTIK DAKI ZEINUEN HIZKUNTZA ERABILTZEN

Zeinuen hizkuntza: gorren eta muttuen komunikazio tresna ezezaguna

Rakel GOÑI

Garai batean gizarteak gorreria edo sorreria, eta baita gormutuak zirenak baztertzen zituen. Gorri atzerrituak bailiran tratatzentzitzen. Informazio falta, ezjakintasunak eta ezezagundeneri beldurrak eragiten zuen egoera hau. Gaur egun, ordea, haur gorra edo mutua sortzen denetik hainbat baliabide ditu komunikatzeko ikasteko. Gurasoek gehienetan izaten duten nora jo laguntzaren bila. Arazoa dator gizartearekin kontaktuak hasten direnean, edozein paper eskatzeke, telebistan ikusten dutena ulertzeko edo tabernan zerbaile eskatzeke arazo handiak izaten dituzte. Berei komunikatzeko dabilen jakitea zeinuen hizkuntzan aritzeko. Elixabeten irakaslea gorra da eta hasieratik «solastu» die zeinuekin. «Hagitz gaizki pasatu nuen lehendabiziko egunetan, ezin nintzelako irakaslearekin komunika-

ELIXABET ITURRIA

Elixabet Iturria arantza, aspalditik zuen zeinuen hizkuntza ikasteko gogoa. Gizarte Hezitzaile ikasketak bukatzen ari da, eta iaz, zeinuen hizkuntzan matrikulatzen saiatu zenean, zerrrenda handia zegoela erran zioten eta ezin izan zuen bere gogoa bete. «Aurten Donostian zentro bera irekiko zutela jakin nuen eta han tren nangoen lehendabizikoa. Hartu egin naute eta baditu lau hilabete han naizela» dio pozik Elixabetek. Bere ikasketekin bat zetorren esperientzia dela aitortzen du Elixabetek. Bere inguruari ez dago gormuturik baina gustatuko litzaiotek eskualdean norbait baden jakitea zeinuen hizkuntzan aritzeko. Elixabeten irakaslea gorra da eta hasieratik «solastu» die zeinuekin. «Hagitz gaizki pasatu nuen lehendabiziko egunetan, ezin nintzelako irakaslearekin komunika-

Gorreria ado sorreria, ikusen ez den munusballotasuna da. Horregatik, daen baina garrantzi ttikiagoe ematen diote aunitzek. Baina arazoa hor dago, eta gizarteak ez gitti egitan du gorren hizkuntza kalidadea hobetzeko. Guretzat arruntak diren aguneroak ekintza aunitz, txirrina edo ate joka entzuterakoa atea irekitzea, telefonoaren seinua, autoaren kiaxona eta abar, arazoa bihurtzen dira gerrentzat. Gerrendako komunikatzea da gauzarik zallenetakoa. Gero eta gehiago ikasten dute zeinuen hizkuntza, baina gehienetan ez dute norekin hitzegia. Hiru urte behar dira zeinuen hizkuntza ikasteko.

tu. Berak hitzegiten du, baina ez da hizkuntza bera. Ahotikan salatzen zara ea zerbaileko ulertzen diozun, baina oso zaila da. Irakasleak dio bera ez dela muttua, beno muttua dela gizarte honetan biziitza tokatu zaioako. Eta arrazoia du, bera komunikatzeko baina ez diogu ulertzen». Lehendabiziko egunean nahitaez alfabetoa ikasi behar izan zuen. Bi ordu ferdiz pasatzen ditu astean bi egunetan, eta ikastaroak 3 urte iraungo ditu. «Momentuz ez dut usle eskualdean gai honeri lotuta deus dagoenik eta honek jarraitzeko gogoa ematen dit.»

EZ DIRA ESKUAK BAKARRIK ERABILTZEN

«Zeinuen hizkuntzan ez dira bakarrak eskuak erabiltzen, aurpegia eta gorputza nola jarri ikasi behar izan dut.» azaltzen du Iturriak. Entzuten dute nintzelako irakaslearekin komunika-

munikatzea ez baitute aurpegia ia erabiltzen. «Espressoia pila bat landu behar da. Behatzan forma berdina aunitzefan hitz desberdina da, orduan aurpegia da aldatzen dena». Ikerlek klaseetan lotsa galtzen ikasibehar izan dute keinuak ikasteko. Azterketa ere egiten dizkiete, kamara baten aurrean izaten dira, dituzten akatsak zeintzuk diren ikus-teko.

HERRIALDE BAKOITZEA
ZEINU EZBERDINAK
Herrialde bakoitzak bere zeinuen hizkuntza du. Benetazko oztopoa da gorrentzat, herrialdez aldatuz gero, bertze zeinuak ikasi behar dituztelako. «Ez dakit zergatikaldatzen den zeinuen hizkuntza herrialde batetik bertzena. Nik gaztelaniaz ikasi dut euskaraz ez dagoelako. Noski euskaraz ikasi nahiko

nuke, baina bertza de hizkuntza bakarra ego-tea iruditzen zait ego-kiena. Katalunian eurenadute, ziur Galizian bertzea badela, azken finean oztopoa da gormuttuentzat.» kexatzen da Elixabet. Zeinuen hizkuntza bakarrarekin de-nentzako hobelitzateke. Dena dela zeinuen hizkuntza praktikatzeko irrikita dago. Momentuz ispiolarekin solastuz konformatzen da.

TERE ETA NATI BIELSA



Tere Bielsa (eskuinean) 61 urte zituela gorra gelditu zen, Natik laster ikasi zuen bere ahizparekin komunikatzen. Terek ezpainak irakurtzen ditu.

1993an meningitis baten ondorioz, Tere Bielsa Elizondarrak entzumena galdu zuen. «Ospitaletik etxera etorri nintzenean gorra nintzen jadanik?» galdetzen dio Terek bere ahizpa Nati-ri. Bai, hala izanzen. Hasieran behin behineko gorreria zela uste zuten baina egunak pasa ahalera errealdadea onartu behar izan zuten. Tere Bielsari hasieratik erran zioten ezpainak irakurtzen ikasi behar zuela. «Nire adinarekin ez naiz hasiko eskuko zeinuen hizkuntza ikasten, jendeari mantso so-lasteko eskatzen diot eta gehienetan ulertzear lortzen dut. Aunitzek erra-


ten didate pizarra bat eramateko baina medi-kuen arabera okerragoa da.» Tere Bielsak arras umore onez hartu du bere gorreria. «Beti bro-metan arida, aunitzetan erraten du; jarri desper-tadorea goiz esnatu behar dudala, edo adibidez norbaitekin telefo-noz ari naizenean berak ere hitzegim nahi izaten du kontatzen du Natik. Tereren ahizpak. «So-lasten ari naizela telefonoaren konexioa mozten da eta nik hor ja-rraitzen dut tar-tarrean» aipatzen du Terek irrika.

Umore ona bai, baina hasierako hilabeteak arras gogorrak izan zi-ren bi ahizpentzat. Na-

tik ez daki aunitzetan Tere non dagoen, oiloak bazkatzen joaten da maiz, erreka bazterrera eta noski, ez dio oihurik botatzen ahal. Lagunbatetik, txirrina argi gorribatekin konektatu zien Terek argia ikus zezan tin-brea jotzen zutenean, halere argia gela baka-rean dago eta suertatu behar da Tere handik hurbil egotea. Terek uste du bizitzan gertatzen diren gauza aunitz gal-tzen dituela. Bazkaniren batera gonbidatzen badute aspertzen da jendeak ez diolako mantso hitzegiten. «Beldurrik gehien ematen didana karreteran kotxeen asotsa ez entzulea da».


ZEINUEN HIZKUNTZA

FRANTSEZEZ



ETX. ARTEZ

GAZTELANIAZ



ETX. ARTEZ

Herrialde bakoitzak zeinuen hizkuntza desberdina du

ttiipi-ttapa aldiizkaria
Henrike Ebeko Plaza, 1
E-31780 BERIA (Nafarroa)

Tfnoa (+34) 948 63 11 88
Faxa (+34) 948 63 12 91

www.topagunea.com
ttiipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: ttiipi-ttapa fundazioa.
Presidentea: Pello Apezebeza.
Kudeatzalea: Joxemmanuel Iriarte.
Zuzendaria: Aitor Arotzena.
Publizitatea: Kulturharr, S.L.
Administrazioa: Amalia Goya.
Erredakzioa: Aitor Arotzena, Rakel Goñi. Berriemalleak: Mikel Ibarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Salazar, Konbie Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Pabi Irarate, Jaiotze Otxandionera, Alba Fernandez, Franck Dolosor, Margari Etxenika, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Ana Mari Etxeberri, Frederick Berruet, Angela, Iñaki eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txopetxena, Joseba Olagarral, Nerea Mixeltorena, Aitor Arotzena, Asier Gogorta, Rakel Goñi.
Kolaboratzaleak: Rakel Amigo, Euskal Henrike Kontsumitzaleen Antolaketa.
Inprimategia: Gertu. Erakunde Langutzaleak: Bera, Leitza, Goizuetar, Arano, Arezo, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Zugarramurdiako Akelarre elkartea, Bortziriak Euskara Mankomunitatea, Mairerreko Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiako Akelarre Elkartea...

Harpidezta sariak:
Hego Euskal Herria 2.400 Pta.
Ipar Euskal Herria 180 Libera
Europa 4.600 Pta.
Amerika 16.500 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du

• GAURKOTASUNEKO GAIA •

Merkealdiak



Merkealdietan edozein produktu aurki dezakegu, ez bakarrik arropa eta zapatak

Mikel Bezunartea Irabaz Kontsumitzaleen Elkarteakoa

Hiru kontzeptu desberdindu behar ditugu: Merkealdiak, saldoak eta likidazioa. Merkealdiak urtarilaren 7an hasi ziren eta bi hilabetez lizatuko dira. Produktuak, duela 30 egun denda den dan berdinak izan behar dute. Kalitate bera izan behar dute eta akatsik gabekoak. Merkealdiak izateko den dan dagoen generoaren %50ak guttienez izan behar du prezio baxuagoa. Saltzaileak beti prezio zaharra eta berria eman beharko du. Aurten prezioak eurotan eta pezetetan eman beharko dituzte dendariek. Beherapenetan edozein produktu aurki dezakegu, ez bakarrik arropa edo zapatak, dendetan eros daitekeen guztia baizik. Irabazik eman ditzakégun aholkuak honako hauak dira: Etiketak ongi begiratzea, informazio guztia irakurri. Erosketak azkar ez egitea, prezioa eta kalitatea konparatz. Ez da nahitaez erosit behar, hau da, hobe da erostea behar duguna eta ez erostea, erosit agatik. Produktuak aldatzeko urte osoan bezala egin daiteke, erosit duguna 6 hilabeteko garantia dauka guttienez. Fakturak edo tiketak gordetzea gomendatzen da aldaketa errazteko. Akatsa duen edozer gauza aldatu behar digute baina, akatsik egon ezean, dendariak nahi izanez gero bale bat egin dezake, edo dirua itzuli, baita produktua aldatzea ere. Ordaintzerakoan kreditu txartelak onartu behar dituzte saltokietan. Publizidatzearekin ere adi egon behar da egunotan. Iragarkien kopurua inoiz balio handiagoa da. Prezioen zenbakiek auritz jolasten da, prezio auritz 999 zenbakiekin akizen dira. Saltzen denaren itxura zein den kontuan hartuko dugu, zenbait saltokietan arropa adibidez, multzotan jartzen dute merkeago denaren ibura emateko. Legearren arabera ongi berezi behar da merkealdietan dagoen produktua eta merkealdietan ez dagoena.

Saldoak, genero akatsduna da eta kienteak hau jakinda erosten du. Likidazioa ordea, denda bat ibi edo tokiz aldatzen dutenean, baita generoak akitzeko egiten den salmenta da.



Erosleek ez dute edozer gauza hartzten, kalitate eta prezioa ona nahi dute

Isabel Elizalde Doneziebeko dendaria

Jendeak kalitatea eta prezioa, bi gauzak nahi ditu merkealdietan: kalidadea baina prezio onean. Hemengo jendeak lasai begiratzen du eta komuni zaiona erosten du, ez du edozer gauza hartzten. Jende auritz kanpora ateratzen da erostera, Donostiara, Irunera, Iruñera... denok egin dugu noizbait, errexa baita. Bertze aldetik, hemen jendea gelditzen da eta Baztan eta Bortziriak ere hurbiltzen da. Orduan guk zerbitzu bateskaintzen badugu, jendeak bertan erosten nahiago du, auritzan Iruñean aurkitzen duten hemen aurkitzen baitute prezio berean edo hobean. Dendarioritzat, aurtengo produktua ateratzeko modua dira merkealdiak, heldu den urterako ez gelditzea. Nolabait berritzea da eta aldi berean, bezeroei eskauntza bat ematea. Gipuzkoan urte berriarekin hasi ziren merkealdiak eta Nafarroan urtamilaren 15ean hasiko dira. Horrek gorabehera batzuk sortzen ditu. Euroarekin, legeak erraten du lau prezio eman behar direla, baina ez gara-ailegatzen. %20eko beherapena badu, ordaintzerakoan aplikatzen du, eurotan nahiz pezetetan.



Produktua bere egiazko prezioan gelditzen da merkealdietan

Ainara Mendiola Doneziebeko gaztea

Merkealdietan Iruñean, Donostian eta merkatual guneetan erosteko ohitura dut. Doneztaben ere bueltaren bat ematen dut zer baden ikusteko, baina gehiena herribit kanpo erosten dut. Merkealdietan kalidadeko gauzak, prezio baturagoan bilatzen ditut. Gustoko dudan zerbaile ikusiz gero ez diot prezioari gehiegi ere begiratzen. Erran behar da, halere, prezioek auritz agintzen dutela merkealdietan, arreta sortatzenten dute. Ez zait iruditzent dendariek benetako beherapenak egiten dituztenik. Produktua egiazko bere prezioan gelditzen da merkealdietan. Pixka bat gehiago merketzen ahal zuten arropa. Leku askotan aurreko denboraldietako gauzak ateratzen dituzte, eta hauak ez dira benetako beherapenak. Merkealdietan jende auritz ibiltzen da eta nire ustez egitan merezi duten gauzak lehenbailehen erosi behar direla. Nik orokorrean arropa eta zapatak bakarrak erosten ditut merkealdietan, ez dut uste bertze gauzak aukera handia dagoenik. Tarteka hurrengo denboraldiko gauzak bilatzen salatzen naiz, benti aurkitzen dut zerbaile.

• IRAKURLEAK MINTZO •

Gizarte Segurantzak ez du Euskararen Legea betetzen Donezteben

Administrazioan Euskaraz Taldeak Gizarte Segurantzaren jokaera salatu nahi du.

Doneztebeko bulego-kobi lanpostu horritube-har ditu bere funtzionarioi gordetako lehiaketa batean.

Donezteben %73,32 euskalduna da eta 12,87 ia euskalduna, azken erroldaren arabera. Euskara hizkuntza ofiziala da. Herritarrek euskara era-biltzeko eta euskaraz harrema-izateko eskubidea dute. Euskararen Legearen arabera, Administrazio bakotzak zehaztuko du zein lanpostutarako izanen den nahitaezkoa euskaraz jakitea,

eta gainerakoentzat, kontuan hartzeke merezi-mendutzat hartuko da besteren artean.

Estatuko Administrazioarentzat hori txorakerriak dira. Gizarte Segurantzako Kudeatzaile arribide emaiak eta Argibideko laguntzaileko lanpostuak betetzeko 2001. go azaroaren 30eko lehiaketa horretan ez du euskaraz jakitea esku eta ez du meritutu moduan kontutan hartu.

Estatuko Enplegu Instituak herri horretan bertan euskaldunak baztertzeko zabaldutako bidean jarraipena ematen dio horrela.

Gizarte Segurantzak eta, oro har, Estatuko Administrazioak ez dute Euskararen Legea betetzen. Bai, bai, «Legeagoa Legea behera» aritzen diren horiek ez dute Le-

gea betetzen.

Doneztebetik euskaldunak desagerrarazteko plangintza ote? Legearen muga gaindituta ere aurrera eramandako?

Administrazioeuskalduna aldarrakatzerakoan, Estatuko Administrazioa ere barneratzen dugu. Euskal Herrian dagoen bitartean, euskaldunon zerbitzura egon behar duelako. Ez dugu bere axolagabekeria eta mes-pretxua oharkabeen igarotzen utzik.


2002. go urtarriaren 2an.

Administrazioan
Euskaraz Taldea.
Ordezkaria:
Txema Oderiz Azkona
(Etxarri)

OHARRA:

Iritzia ezberdinak tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 letero baino luzeago idaztea gutun hanetan. Idatzi duenarenizen-deiturak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren fotokopia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, ttipi-ttakap berri esku izanen du horretarako eskubidea.

Ez dira argitaratuko beren nortasuna agertzen ez digutenen iritzirik.



LESAKA

Maderas GOMEZ



Zaldibia Poligonoa - IRURITA - 6 948 580 845

- Era guzietako atea, janbak eta regresoa
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...



PAGOLA

TXISTORRAREN
IZENA

© 948 630 054
Altzateko Plaza, 2
BERA

**Alberto
RETEGI**
abokatua

Altzate 17
BERA
© 948 630 763

PIKABEA pinturak
Molinero drogerian
galduen

Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio
arazoak moldatuko dizkizugu

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Ipoz 8 • © 948 630 240 - 948 631 495 • BERA

616 513 491

Pitti
ESKABAZIOAK
C/Ametsa, 1
TOKI DOMEZTEBE (GAIAKOA)

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Zazpika (Gara), 01eko abenduaren 23a

«Nere ama sukaldari bikaina zen. Denbora haietan, kontrabandoareragatik segurik, dirua bazen eta bankeko haundiak antolatzeko ziren. Nere amari baxkari halek prestatzeara eskatzen zioten».

«Zapore hauetako lortzeko garaiako jakiak erabiliztea arras garantzitsua da, gusto ezberdinak baitute. Jendeak sukalde ondoan dagoen jantokia eskatzen du, bezeroei lana nola egiten dugun ikuslea gustatzera baitzaie».

Teresa SANTXOTENA
Elizondoko Sanbotena
jaletzekoa

Zazpika 01-12-23

«Argi daukat, hau lortu ondoren ezin naiz lotan gelditu».

«Ez dakit txapel gehiago lortuko ditudan, baina gutxienez nik eta nireek badakigu zer den hori. Hemendik aumera edozen gertatzen dela ere, badakit lau terdiko txapeketa bat irabaztea lortu dudala».

«Pilotan ongi aritzeko guztiz zentratua egon behar duzu eta disiplina haundi eduki».

Abel BARRIOLA
Leitzako pilotaria
D. de Navarra 01-12-26

• 11 GALDERA LABUR •



Joxe Angel ELIZALDE Orabideako akordeolaria

- Emaztea edo infernuko auspoa? Ebxean ditudan bi neskak, emaztea eta alaba.
- Zein bestatan ez zenuke akordeola hartuko? Nire ezkontza egunean ere, akordeoi titik bat oportu zidaten eta jo nuen.
- Arraroa egiten zaizu besta egitea akordeoirik gabe? Ez, gustora egiten dut besta akordeoirik gabe aukera dagoenean bederen.
- Euskal Herritik urrun jo duzu noiz-bait? Bai Estatu Batuetan, Kalifornian, Euskal Piknik batean.
- Nola eramatzen du emazteak duzun bizimodua? Ongi, nirekin ezkondu zenean bazezien zein zen nire ogibidea.
- Taldean jotzen ala bakarrik? Bietara gustora.
- Zein tokitan jo zenuen inauteetan lehenengo aldiz? Zugarramurdin izan zen, Mendiondoko bordan eta arras ongi pasatu nuen.
- Ez bazina musikaria izanen...? Ez dut behin ere pentsatu.
- Zein tokitan zaude gustorago? Sortebelean, Orabideko Antxonean.
- Zenbat herritan jotzen duzu inauteetan? Auten 6 bat herritara joanen naiz jitzera inauteetan.
- Gazteak ongi portatzen al dira zu-rekin edo bada zakarren bat? Normalean ongi portatzen dira nirekin, momentuz ez dut arazo lamnik izan inorekin.

EIBERRIKO GOBERNUEKO EDIBERE

ANZABAL

AGENTZIA

Zurich Aseguruak

- Autoa, errebiltsa, istripu eta bizitza aseguak

Lan ahollkularitza

- Nomira eta Aseguru Sozialak

Ahollkularitza fiskala

- Errrenta Deklarazioak, IVA,...

Immobiliaria

- Baserririk, borda, pisu, etaburren salmenta eta alokairua

Gestoria

- Ibilgailuen transferentziak, gitarreko karmenaren berriera eta edozein gizako gestioak

Santafé, 15 - Hiru zila Panti-948 630004 - ELIZONDO

Ortziraletan, 10etan
Mus Txapelketak
ERREKALDE ostatua

Tfnoa: 948630259 - BERA

© 948 631462
Alzate I + BERA



Harategia

Eztegarri 3

Tfnoa: 948 630 198

BERA

KAXULA

- Sukaldeko tresnak

- Opariak

- Pinturak

Albistur, 51 LESAKA

© 948 63 75 58

EKONOMIA

Espainiako Gobernuak 5.000 milioi pezeta jasoko du eskualdetik

Batasunak salatu duenez,
bizilagun bakoitzak 190.000
pezeta ordainduko dizkio Madrili

tipi-Itzapa

Batasunak egindako kalkuluen arabera, tipi-Itzaparen eremuko Nafarroako herriek aurten 5.178.218.583 ordainduodiote Madrilgo Gobernuari. Batasunak adierazi duenez, gure herrietatik 44.418.176 pezeta joanen dira Errege-Etxerako eta Organismo Konstituzionaltarako, 113.091.721 kanpo harremanetarako, berrete 853.831.059 pezeta Defentsa Ministeriorako eta 619.097.373 pezeta Barne Ministeriorako. Banaz bertze, bizilagun bakoitzak 190.000 pezeta ordainduko dizkio aurten Espainiako Gobernuari, Batasunaren ustez «hein handi batean guare herriaren kontra era-biltzen dituen eskumenak ordaintzeko, bertzeak bertze armada, Errege-Etxea eta politika».

Batasunak agertu duenez, « beharrezko da ongi argitzea zein dengauregun Kontzertua eta Komenio Ekonomikoek isladatzen duten errealitatea. Azterketa serio bat egiten badugu, segituan konturatu-ko gara Euskal Herriaren ukapen politiko eta ekonomikoaren bertze adierazle bat direla».

**«EUSKAL HERRIKO
MENPEKOTASUNAREN
ADIERAZLE ARGIAK»**

Datu hauetan mahai gainean paratuta, Kontzertua eta Komenioa Euskal Herriko menpekotasunaren adierazleak bertzerik ez direla us- te du Batasunak: «Non dago PNV-EA-IU-k eta UPN-k demagogikoki hainbertze aldarrikatzen duten Kontzertua eta Komenio Ekonomikoaren autogobernuaren bir- tualitatea? Serioak izan gaitezen, Euskal Herri-

KONTZERTU EKONOMIKOA HERRIZ HERRI

HERRIA	Orokorra	Erregea...	Kanpo Har.	Defentsa	Barne Min.
ARANO	32.060.910	219.291	700.826	5.286.524	3.833.138
ARANTZA	137.785.576	942.431	3.011.883	22.719.465	16.473.366
ARESO	52.862.333	361.570	1.155.528	8.716.471	6.320.114
BAZTAN	1.518.885.593	19.388.932	33.201.626	250.449.063	181.594.899
BEINTZA-LABAIEN	61.259.238	419.003	1.339.078	10.101.036	7.324.031
BERA	668.317.295	4.571.182	14.608.882	110.198.846	79.902.668
BERTIZARANA	125.381.059	857.583	2.640.731	20.668.624	14.990.307
DONAMARIA	67.747.755	463.384	1.480.912	11.170.928	8.099.785
DONEZTEBE	227.288.949	1.554.620	4.968.355	37.477.677	27.174.208
ELGORRIAGA	34.160.136	233.650	746.713	5.632.665	4.084.117
ERATSUN	37.213.556	254.535	813.459	6.136.144	4.449.178
ETXALAR	163.930.484	1.121.258	3.583.389	27.030.499	19.599.198
EZKURRA	51.144.784	349.822	1.117.984	8.433.264	6.114.767
GOIZUETA	197.327.265	1.349.687	4.313.416	32.537.295	23.592.050
IGANTZI	112.785.700	771.436	2.465.405	18.597.235	13.484.431
ITUREN	91.984.276	629.158	2.010.703	15.167.288	10.997.455
LEITZA	603.241.282	4.126.073	13.186.372	99.468.462	72.122.311
LESAKA	525.951.589	3.597.424	11.496.882	86.724.163	62.881.711
OITZ	30.725.038	210.154	671.625	5.066.252	3.673.424
SALDIAS	32.442.587	221.902	709.169	5.349.459	3.878.770
SUNBILLA	135.495.511	926.767	2.961.824	22.341.856	16.199.570
URDAZUBI	87.594.985	599.136	1.914.756	14.443.538	10.472.680
URROTZ	69.465.304	475.131	1.518.456	11.454.135	8.305.132
ZUBIETA	62.213.432	425.530	1.359.936	10.258.373	7.438.112
ZUGARRAMUROLA	50.953.946	348.517	1.113.813	8.401.797	6.091.951
DENETARA	5.178.218.583	44.418.176	113.091.721	853.831.059	619.097.373

ko menpekotasunaren eta partizioaren adierazle argia bertzen ez dira».

Kontzertua eta Komenio ekonomikoak iposizio baten ondorio di- rela dio Batasunak: «Karlistadak galdu on- doren, Foruak kendu eta gero soberania fiskala ere galdu genuen. Ha- rezkerro Estatu espainoleko egitura fiskalaren menpe gaude».

Batasunaren erra- netan, Euskal Herri osorako burujabetza fiskala- ren aldeko bidea egi- ten hasteko tenore da. «Ez da momentua zen- bait zerga biltzeko eta bertze batuetan alda- keta itxi batzuk proponatzeko. Garai da Kontzertua eta Komenioa gaindituz burujabetza fiskalaren aldeko bidea egiten hasteko Euskal Herri osorako, behardu-

gun ermitoa markatuz eta estrategia amankomun baten inguruan indarrak bilduz. Kontuan eduki behar dugu Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Behereak ez duela inofako ahamen fis- kalik».

Zerga sistema au- rrerakoa eta birbana- tzalea antolatzeko lan egin eta borrokatzeko asmoa azaldu du Bata- sunak.

belardenda
Mediku naturista
kontsulta
Masajista

Legia 1, behea • BERA • 948 630652

Lanchas

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera • 948630735

**BIOK BAT
TAILERRAK**
«Bitxo»

Santiago 10, behea • 948 580898 • ELIZONDO

NEGUKO PROMOZIOA
HUSQVARNA
MOTOZERRA

45.000 pezeta (270,46 euro)
hasita katea eta 5 litro olio opari

Haragi xehetzeko
makina
3 modelo
prezio onean



BERA

Nafarroako iraganari buruzko erakusketa eginen da Kultur Etxean

Etorkizuneko Julio C. Baroja museo etnografikoaren aurrerapena da

Asier GOGORTZA

2004. urtean Irabeko Monastegian irekiko den Julio Caro Baroja museo etnologikoaren aurkezpena da urtarilaren 11tik otsailaren 2ra Berako Kultur Etxean ikusgai egonen den era-kusketa.

Lau zaitan baratua dago erakusketa: batek, lanbideei dagokien atalean, lanabes edo laneko tresna zaharrak egonen dira. Bertzetik, santuei eta bestelako eskaimitako txokoan, Nafarroako garai bateko besta egutegia eta erlijio sineskerekintzak lotura duten kontuak izanen dira. Gero zenbait autoreroren testuak ere tartekatu dituzte testuinguru ekonomiko, sozial eta kulturala ulertarazteko. Azkenik, museo etnologikoaren xedeak eta proiektua azalduko ditu erakusketa honek.



Iazko abenduaren 31n Gure Txoko dantza taldeak udan estreinaturiko dantza ikuskizuna errepikatu egin zuen. Aitzineko aldian bezala ikusmin handia biltu zuen eta izugarrizko arrakasta izandu zuen, ikusleak arraso betea egon baitzen Eztegara pilotalekua. 40 dantzari eta 16 musikarik parte hartzen duen ikuskizun erraldoi honetan, eta denetara 13 dantzatik goiti dantzatzentz dituzte: Muxikoak, Maskarada, Jaurrieta, Larraindantza, Segadoras, Kontrapas, San Miguel, Gipuzkoako eta Lekeitioko agurra, Berako porrusalda, Dantzuze, Kabalkada eta horiez gain Euskal Herriko Fandango eta Arin-arin desberdinak.

BERTSOAK

Hainbat beratar Bidasoako XV. Bertso paper lehiaketako sarituen artean

Abenduaren 29an partitua dira Gure Txoko Elkarteak eta Bortzirietako Bertso Esko-

lak antolatzen duten Bertso Paper Lehiaketaren sariak, eta beratarrek eraman dituzte

sari gehienak. Unai Rodriguez, Josune Elgoiriaga, Enara Irurieta, Ainhoa Zelaieta eta Iñarritu Moncayola izan dira 12 urte artekoen artean saridunak. Saioa Baleztena eta Garazi Ta-

berna, 16 urte bitartekoetan, 20 urte bitartekoetan, berriz, Egoitz Zelaieta eta Igor Lasaga, eta 20 urtetik goiti koetan Julen Zelaietaren bertsoek eraman du te lehen saria.

FLASH

Edurnezuri

Berako hainbat emakumek osatzen duten Emailta antzerki taldea. Edurnezuri antzezlana berriz aurkeztuko du jendearen aitzinean. Oraingo honetan urtarilaren 13an izanen da, igandearekin, eta arratsaldeko 5etan hasiko da obra.

Akordeoilariak sarituak Arrasaten

Kasik uneroko ohitura bihurtzen ari da, baina ezin aipatu gabe utzi Usoa Zelaieta eta Estibetxu Pinatxoa akordeoilari beratarrek. Arrasaten Lehiaketa famatuaren lortutako sariak, bakoitzak bere kategorian.

Gabon kopa

Ematzuplay taldeak irabazi zuen gabonetako futbilo txapelketa, finalean Baietz taldeari 2 eta 1 irabaziz. Aurtengo txapelketan 12 talde lehiatu dira, eta aipatu behar da neska eta infantilen kategorian ez dela ekiporik apuntatu.

Euro-nahasmena

Euroa dela eta dexentekeo nahasmena izan da lehendabiziko egunetan komertzio eta banketxeetan. Komertzio gehienetan bi monetekin lan egiten aridira, bakarren batzuk euroak bakarrik onartzeko erabakia hartu badute ere. Banketxeetan, bertzalde, jende pila ederra izan zen lehen egunetan pezetak euro bihurtzeko asmoan.

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK

Altzate, 5 • 31000 Bera

ZALAIN

JATETXEA
EGUNERO MENUA ETA KARTA

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain Auzoa

948631106

BERA

bortzIRUDI

BERA

HOSKETAK

FOTOGRAFIAK
ENKLADERNACION
PLASTIFIKazioak
FAXA - E-MAILA
SKANNERIA
Ertegarria 26 bohemia

Tel.-Fax: 948 63 15 21

LESAKA

Ohiko eta ez ohiko ospakizunek hasiera eman diote urte berriari

Mololo Irigoienen 22-20 irabazi zion Zabalori Urtezaharreko desafioan

Aitor AROTZENA

Eguberri bezperan, hainbattalde bildu ziren plazako Olientzero eta Jaiotza lehiaketan, hoztari aurre eginez. Egutan preso eta ihesariak ere gogoratu dira, enkarterlada eta beraualdien bitartez. Urtezahar Egunean Abesbatzak antolatutako «Dios te salve»ak eta Errege Kabalgatak akaba eman diote egun berezihauei. Urtezahar arratsaldean, lau terdiko pilotu desafioa izan zen pilotalekuaren, Mololo Irigoien eta Zabaloren artean. Silveira eta Etxabe bertsolariak botillero zituztela. Jende aunitzek ikusi zuen lesekarraren garaipena.



AITOR AROTZENA

Joan den urtean bezala, Susperregi eta Dagerrek irabazi dute Batzoki elkartea bosgarren urtez antolatutako paleta-goma txapelketa. Elite mailako finalean 35-26 irabazi zieten Etxegoien eta Zapialn-i. Bi bikote hauek, eliteko Nafarroako paleta goma txapelketan parte hartuko dute. Lehen mailako finalean, berriz, Oiartzabal eta Sanjurjo lesakarrek 35 eta 25 irabazi zieten Santesteban eta Arburua igantziarrei.

BESTAK

Endara auzoak hainbat bisitari hartuko ditu San Anton egunean

Heldu den ortzegunean, urtarrilaren 17an, ospatuko da San Anton eguna eta meza ematen dute baselizan. Berrez nekazarrien eguna hori bada ere, hurrengo igandean, urtarrilaren 20an, Bortziriak, Oiartzun eta Irun aldeko auñitez jende gehiagobil-

duko da Endara auzoko ermitaren inguruan, urteroko ohiturari eutsiz. Meza aditu ondotik, Oiaberri ostatuau tragoxka eta pintxo batzuk hartu eta atarian dantzatzeko modua ere izanen da. Erroskila saltzaileek ere hitzordua izanen dute San Antonen.



Ola-berri jatetxeko atarian dantzaldia izanen da San Anton egunean.

FLASH

Zugarramurdiko Sorginak

Arrakasta haundia izan zuen Mairu antzerki taldearen eta Tantirumai-ru euskal folklore taldeak ekoitztutako antzezlanak. Hotz ikaragarriari aurre eginez eta ordu berean lau terdiko txapelketaren finala telebistan ikusgai izanagatik, 500 lagun inguru bildu ziren frontoian abenduaren 23an ikuskizunaz gozatzera.

Pablo Lazkano onik topatu zuten

Urtezahar arratsean desagertu zen Andra Mari Zahar Etxetik, sortez aranztarra den Pablo Lazkano Arrieta. Bi egunez bere bila aritu ziren su-hiltzaileak, foruzainak eta guardiazibilak. Urtarrilaren 2ko goizean topatu zuten. Zulo bat erorieta ezin ateraz gelditua zen. Bustia, hoztua eta ahul bazegoen ere, ezbeharrerek onik atera zela erraten ahal da.

Bertso Maratoia

Bortzirietako bertso eskolaren taldekkako laugarren lehiaketa burutu da larunbat honetan, bertso maratoi batzen bittaraz. Hiruna bertsolari sei taldean banatu dira partehartzaileak. Arratsaldez Saski Berriin, Kaltun eta Berako Errekalden kanporaketak egin ondotik, arratsean Arrano elkartean egin dira finalerdia eta finala. Tartean afaltzeko astia hartu zuten.

XATURETXEA
JATETXEA

Tfnoa: 948637027 LESAKA

IRU BIDE
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

ANA janari denda

Bilbao 41 - Tfnoa: 948 637518 - LESAKA

KATTU
ostatu - jatetxea
Pielar kokinak eta morsak
c/ 948627515 - LESAKA

kide
leapaindegia

Tel: 948 637429
Bilboko Plaza, 3 behe
LESAKA

ETXALAR

Errege eguneko txokolatadarekin erran genion adio Eguberriei

Haur andana bildu zen Larraburuak antolatzen duen berenduan

Joseba eta Nerea

Abenduaren 24ean egiten zuen hotz ikara-garriari gogoreginez herriko aunitz bildu zen Ollentzerori ongi-erorrira egitera. Joan den urtean 3 Ollentzero baziren ere, bi bakarrik ikusi ahal izan dira aurreko. Bertze hainbat herrian arratsalde parlean ateratzen badira Ollentzeroak, Etxalarren ilunabarreko mezaren ondotik egin zuen uteroko herri-buelta. Herriko trikitilari eta txistularien laguntzaz inoiz baino herriko gehiago ibili zen Etxalariko karriketan barrena termometroan zero azpitik zeuden graduguzieei antziri eginez. Azken urteetan bezala, aurreko erantzunetan guraso aunitz animatu zen base-rritar arropa jauntzi eta haurrekin batera bestan parte hartzen. Alpatu, eguna aukatzeko, etxeak bildu zen di-ruarekin lantxa eman zela. Elutsa ostatuan bildutako haureta ez haurrentzat.



Bi Ollentzeroak, ilunabarreko mezaren ondotik ateratzen ziren.

José GAGARAI

Errege eguneko txokolatada

Urteroko ohitura da Larraburuak jubilatu el-karteak errege egunean, urtarrilak 6, herriko haurrentzat txokolatada ematea. Badira hamar bat urre egiten dela eta aurten goa ere aski giro ederrean joan zen haur aunitz bildu baitzen. 17:30etan eman zen berenduaren ondotik hain-

bat opariren zozketa egin zen.

Gabonetako saskiak

Urtesasoi honetan ohitura da gabonetako saskiak zozketatzea eta horren lekuak dira Etxalariko 3 tiendak eta Elutsa ostatua. Hauak urtero ateratzen dute produktu desberdinez osatutako saskia bezeroen-

tzat zozketan eta hauek izan dira aurreko sarietako suertatu direnak: Landaburuko saskia Ageda Goienetxek eskuatu zuten. Arrigaraian bi saski zeuden: bat Tomasenera joan zen eta bertzea Arrineko Bordara. Ekititako saskia Hamiko Pilameritokatu zitzaiotzera eta Elutsako Bene Agirreri. Zorionak irabazle guziei!

FLASH

Etxalartarrek emaitza onak Belate ligan

Udazkenean hasi zen Belate liga abenduan akantu zen. 3 hilabete iraun duen txapelketa honetan etxalartarrek aski lan ona egin zuten. Finala Berako Eztegarra pilotalekuaren jokatu zen eta alebinen kategoriako txapela etxalartar bikoteen artean erabaki zen. Modu honetan, Xabi Etxarte eta Julen Aranburu 18-16ko emaitzarekin galdu zitzaizkien Mattin Maia eta Hasier Irazokiri, Bertzalde, infantil kategorian Eneko Tellebexa eta Josu Tomásenak 16-18 galdu zuten finala, horrela bigarren postua eskuatuz. Hau ikusita, Isidoro Gallardon eta Joxe Mari Maia entrena-tzaileak gustora zeuden fortutako emaitzarekin, parte hartu zuten 5 bikoteetatik 3 pasatu baitziren finalera.

Presoen aldeko konzentrazioa abenduaren 31n

Urteko azkeneko eguna aprobetxatuz, hogeihamar bat lagun bildu zituen konzentrazio ixila egin zen udalebe aitzinean, egunberri gurekin egotekiztan ez duten preso eta iheslariak gororatz.

SAROBE
okindegia

SANDERS Pentsuak
Etxepa 41, Tfnoa: 948 630 819 - BERA

OKANE

HARATEGIA · URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 - BERA

IGANDE GOIZTIAN IDEKITA DUGU

- Liburuak
- Papertegia
- Tabakoa
- Plastifikazioak egiten ditugu
- FAX publikoa
- Enkuadernatzeak
- Inprenta lanak

Enkuadernatzailea
espiralean ere
egiten dira.

LBBAR

Urtarrilak 8 • 0948 631 030 • IESKA

« USOA »
NEKAZARI KOOPERATIBA

Ganadusentzat
pentsurik egokienea
Tfnoa: 948635214

ETXALAR

LRBE-ZAR

0948631076 - BERA

IGANTZI

Herria ezagutuz

Aspaldiko urtetako hotzik handienarekin joan dira Eguberriak

Josetxo Txoperenak utzi egin du bere zinegotzi kargua

Oskar TXOPERENA.

Aspaldiko urtetako hotzik handienarekin joan dira Eguberriak. Iaz erraten genuen haizegoa eta eguraldi ederra izan zirela nagusi. Aurtzen, ordea, guztiz kontrako suertatu zaigu. Hormak gorabehera, hainbat berri eman di- gu urte bukaerak.

Eguberrietako zareak

Igantziko Abesbatzak eta Eskolako haurrek eguberrieta zozketatzen dituzten zareak segutuxea egon dira dagoeneko. Harere, alpatu eginen dugu nora joan diren. Abesbatzaren Amerikatik bisitari etorri eta kontzertu ondotik zozketa ikus- ten arizen Nicolas Etxartek eraman zuen. Eskolakoa, berriz, Ana Sunsundegiriegokitzia. Agertzeko da- goena eskolako zarea- ren bigarren zatia da, urdaiazpikoarena. Ez dugu zenbakirik erra- nen, bigarren zozketa



OLASTEKOAK URTETAKO ARGAZKIA

Garaiai dagokion bezala, hotza izan da nagusi Eguberriko bestetan, hasierako egunetan batez ere. Abesbatzaren kontzertua izan genuen hasteko eta eguberri bezperan, ohikoan den bezala, haurren esku izan zen goizean eta Ollentzeroen kalejira arratsaldez. Alpamen berezia merezi du gure ustez Biltokik aurten prestatutako Ollentzeroak. Argazkian ageri den bezala, nabaria zen txukun- txukun prestatzeko egindako ahalegina.

ATM s.a.



AUXILIAR DE
TRANSFORMADOS
METALICOS, S.A.

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Ate metalikoak (baskulante, korredora, giloona...)
- Aireadoreak (estatikoak, erregulagariak...)

Igantziko Bentak • ☎ 948 637 411 • Faxa: 948 637 313

egitekoan baitzuten aste ondarr honetan.

Dimisioa Herrikoetxearen

2001. urteak Herrikoetxearen bigarren dimisioa ekarri duela jakin dugu. Urte hasieran Jose Mari Almendozek utzi zuen bere kargua eta oraingoan, urte ahabiaren, Josetxo Txoperenak aurkeztu du dimisioa. Orain dela zenbait hilabete Leitzara joan zen bizitzera eta hori izan liteke dimisioaren arrazoa. Ondorioz, trimitazioak eginen dira orain Herri Taldearen barrenean aldaketa egiteko.

Herriko garbiketa lanak

Aurtengozer ere Korpus Txoperenak eginen ditu herriko garbiketa lanak. Berea izan da aurkeztu den proposamen bakarra eta iazko baldintza beretan eginen ditu Herrikoetxe, kon- tsulta, eskola eta herri ingurua garbitzeko.



Plaza Berria, 13 ☎ 948 627547 LESAKA

EKAITZA

Hostala • Kafetegia

Gelak TB eta bainuarekin

Zure inguruak ikasi gaituko inpektzor (komunitate, zinarrak, armak, kokoa...) eta amatzu-eguzkioak garbi nahi baduzu, denbil Gasteiztarrok gara horrela.
Termita eta Poltien kontrako tratamendua



© 948630155
BERA



Zelaia

Guk betidanik hutsa ezagutu baldin badugu ere, gaur egun Nafarroako Kutxaren eraikin berriak hartzen duen lur eremua bertzebatek betetzen zuen XIX. mendera arte: Zelaia izeneko etxeak. Parrokioko dokumentu zaharrenetan ere agertzen zaigu Zelaia, eta aipamenik zaharrena 1605eko da, «Ele- na de Celaya»ren batzai, hain zuzen ere. Mende berean, ordea, garai hartan izugarri zabaldua zegoen abizena zen nagusi bertan: Ape- txe. Agertzen den lehendabizikoa Joanes de Apocchea da (gerriko zena, hileta liburuan ageri den bezala; «vino nuevo de Castilla de cómo murieron Juanes de Apocchea, mazero vecino de esta villa y dueño de la casa de Celaya») eta ondotik Bautista, Pedro... Izan ziren nagusietako batzuk, ho- rela XIX. mendera arte iraun zuen leinuarekin.

1853an oraindik bi famili bizi ziren bertan, baina, 1867ko errollak erori edo ondatutzat eman zuen: «Celaya, derruida». 1956an Herrikoetxeak errepidea zabal- tzeko erosia nahi izan zion baratzea Celia de Leon-4.

ARANTZA

Olentzeroren bisita giro onean ospatu zuten herritarrek

Ohitura erretzea bada ere, surik ez zioten eman haizearengatik

Nerea ALTZURI

Oraintxik hotzkaun-dienak ez ditugula pasatu erraten badute ere eguraldi adituek, hotz-egunak herrian sumatu dira. Eguberrietaiko iragarpenak ordea ez ditu trabatu eguraldiak. Herritar saila ibili zen karrikaz-karrika omentzero eguneko arratsaldean eguberrietaiko kantak kantari. Sei omentzero ateriziren guzira, etagroa beroa izan zen, iaz baino lagun gehiago animatu baitzen urteroko hitzordu honetan parte hartzeko. Karrikaitzulia egin eta gero, Guraso Elkarteak prestaturik berendu goxoa dastatu zuten haur, guraso eta gazteek.

Eguberri egunean, eguerdi partean bildu ziren berri zereguak herriko plazan. Hotzak ez zituen eragotzi betiko egintzak: Sil-dantzan aritu ziren haurrak, omentzeroak hartu eta eguberri kanta bana abes-

tuzuen talde bakoitzak... baina ez zuten omentzeroa erre. Haize mugimena ez zenez batere bare, arriskutsua ikusi zuten sua egitea.

Zolaberritutako pisten inaugurazioa

Abenduaren erdi-aldean akautu zituen Saso enpresak auzoetako bideen zolaberritze lanak eta 16an inauguratu zituzten. Jose Ramon Amoros alkatea eta Xabier Zugarramurdieta Teodoro Pikaeta zinegotziak izan ziren Nafarroako Gobernuko lehendakariordea eta zuendari ordea diren Rafael Gurrea eta Juan Frommknecht-ekin. Lanen aurkezpena eginzuten lehenik plazan, eta gero zenbait auzoetako pistak ikustera joan ziren, obrak egin dituen enpresako arduraduna-rekin batera. Guzira 104 milioi pezetako kostua izan duten zolaberritze



ANTONIO JOSÉ

Ez da aurtengo argazkia honako hau. Zazpi urte izanen ditu aisa, baina eguberrietaiko oporraldiak hurreratu ahala antzezlanak egiteko ohitura zaharra goa da herriko eskolan. Aurtzen, abenduaren 16ko arratsaldean izan zuen antzerkiak eskolako jirnasoa guna bertze urte batez. Tanpetaraino zaleekin betea izan zen xokoa, eskolako ikasle eta irakasleen hilabete terdiko lanak gozatzen. Honako hauetan antzeztu ziren: 1. zikloa eta Haur Hezkuntzakoek, «kaletik mendira» izeneko; 2. Ziklokoek prestaturikoa «Agur euroa agur»; «Almondiaga misteriotsua», 3. Zikloko lagunen lana izan zen; eta DBH-ko ikasleek «Etxe misteriotsua» izeneko antzeztena antzeztu zuten. Zorionak beraz ekimen honen bulkatzalei guziei eta eutsi ohitura polit honi!

lanek. Kopuru horretatik %80a Nafarroako Gobernuak ordaindu du eta gainerako gastua Udalaren eta auzokideen artean banatu da.

Futbito txapelketa

Herriko gazteek kirola, elkarrekin negoteko gogoa eta ongi pasa-zea uztartuz bigarren urtez futbito txapelketa antolatu zuten. Sei taldekuak dute abenduaren 30aren eta ur-

tarrilaren 5aren artean eginiko txapelketan. Lehendizko arratsaldean eginiko partiden emaitzak emanditzakegu ale honetan. Bi multzoan, hiruna taldeetan banatuz arituziren. A multzoan, Sanbiroyak, Asto Gaztik eta Ostian ekipua diuk aritu ziren eta lehenengo biak pasatu ziren errege bezperako jardunaldira. B multzoan berri, Kinto Asto Bilbao, Guria eta Koka Juniors-ek ere hiru parti-

du jokatu zituzten, eta lehena eta hirugarrenak lortu zuten hurrengo fasesa pasatzea. Errege egunean talde irabazleak debalde bazkaldu izanen du Aterpen.

Zahar-Txoko zabalik

Hilabete terdiz ixia egon ondotik, abenduaren 16an zabaldu zuen Asun Iribarren igantzia Zahar-Txoko. Aste hondarrero eta besta egunetan irekiko du.

**TAXIRULU
Ioredenda**

Albizur, 39-K
= 627542
LESAKA

- bilbikoriatik
- apartak
- enmarkazioak

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

- Astelarenetik astaazkenera 9-13tara eta 15-19etara
- Ortzegun eta ortziraletan, Betatik 15etara
- Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

- ARTEKARI, S.L. • 948133328-133345. Fax: 948133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa bemi ezberdinoren sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorpenak
- Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- Bideragarritasun planak

KOKILA OSTATUA

Zarandia, 4 - LESAKA

MALERREKA

Emanaldi berezia eskaini zuen Doneztebeko Musika Eskolak

Urtea akitzeko kontzertua eta ipuin musikatua eskaini zituen elizan

Ttipi-ttapa

Doneztebeko Musika eskolak ere eguberrieta geldialdia probektuz emanaldi bereziak antolatu zituen abenduaren 22an elizan. Haste komunika eskolako ikasleek hiruhilabeteko kontzertua eskaini zuten, orain arte ikasitako jendaurrean erakustera emateko.

Baina ondotik berzerik ere izan zen. Musika eskolako irakasleen ekinenez, Horra Mari ipuin musikala eskaini zuten entzuleentzat.

David Azurza tolosarrak musikatu eta eta Joxemari Iturraldeki idatzitako lan honek eguberriak eta euskal mitologia aski modu berexian nahastu zituen.

Obraantzezko, Jon Irazoki irakasleak zuzendari lanak bete zituen Garbiñe Leiza, irakaslea hau ere, pianoaz arduratu zen eta azkenik Jose Javier Azkorbe herriko apezak bete zuen narratzaila papera.



ARTURO KOMA

Leurtza inguruan zaintze berezia egin dute asteotan Ekologi Babeserako Zerbitzuko foruzainek. Legez babestuak dauden igelek arraultzeak jartzen dituzte garai honetan eta pasan allegatzen dira Leurtza ingurura.

LEHIAKETAK

IV. Bertso-paper eta ipuin lehiaketako sariak banatu ditu Mankomunitateak

Malerrekako Mankomunitateko Euskara Batzordeak 4. aldi antolatutako ipuin eta bertso-paper lehiaketako sariak banatu ziren abenduaren 19an Doneztebeko eskolaren. Ipuin lehiaketan, L.H.ko 3. eta 4. mailako

ikasleen artean, Maialen Belarra doñeztebarra eskuratu zuen lehen saria, 5. eta 6. mailako artean, Sunbillako Maite Mendibilentzat izan zen saria. Bertso-paper lehiaketan, 3. eta 4. mailan aipamen berezia Laura Mendibil sunbillarrarentzat izan da. 5. eta 6. mailan, lehen saria Maite Mendibilentzat eta 2. saria Maitane Erasun-Oihana Mindegia iturendarrentzat.

BERTIZ

Hiru saskiak eta erosketa bonoak banatu ditu Merkatal Elkarteak

Ttipi-ttapa

Urtarrilaren 2an zozketatzen ziren Bertizko Turismo Partzuergoko Merkatal Elkarteak, elkarteko produktuekin betetako 750 euroko balioa duten hiru saski eta 300 euroko erosketa bonoak. Honako hauek dira sanitutako zenbaikiak:

- 66.577, Elizondoko Esarte harategian banatua.
- 126.772, Sunbillako estankoan banatua.
- 210.066, Lesakako Legarra liburudendantan banatua.

Irabazleek Bertizko Turismo Partzuergora deitu beharko dute (tel. 948 59 23 23). Saritutako zenbaikiak agertzen ez badira, bigarren zozketa urtarrilaren 16an eginen da. Erosketa bonoekin sarrituek, urtarrilaren 31n baino lehen egin behar dituzte erosketak.



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

PINTURA BLACK

KOLORE EZBERDINETAN
GOTELE • BARNIZ • DEKORAZIOA
AURREKONTUA KONPROMISURIK GABE

Tel: 646 27 92 10 (Aitor)
DONEZTEBE (NAFARROA)

AZPIEGITURAK

Baztan, Bertizarana, Malerreka eta Leitzan zenbait lan eginen dira

Toki Azpiegitura Planean sartu ditu Nafarroako Gobernuak

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuko Toki Administrazio Departamendua Leku Azpiegitura Planaren barnean, Baztan, Bertizarana, Donamaria, Ezkurra, Beintza-Labaien eta Leitzan inbertsioak egitea onartu du.

Baztan eta Bertizarana aldean, Zeberia errekatik Narbarte, Legasa, Oieregi eta Oronoz-Mugairira ura era-mateko lanen bigarren fasea eginen da. Aurrekontua 19'29 milioi pezetako da, eta 15'16 milioi Nafarroako Gobernuak paratuko ditu.

Donamarian, urarentzat 2.000 metro hodi paratuko dira eta hamar arketa eginen dira. Lanaren aurrekontua 17'52 milioi pezetako da eta Toki Administrazio Departamendua 13'80 milioi ordainduko ditu. Azkarraga auzoan, gainera, ur-biltegiak moldatuko dira eta karrikak zolaberritu eginen dira. 31 milioi pezetako aurrekontuarekin.

Ezkurrako hilerria moldatu eta 262 metro koadrotan zabaldu eginen da. Horretarako, alde bateko pareta bota eta berria eginen da. Aurrekontua 4,6 milioi pezetako da. Iruñetik 2,84

milioi pezetako inbertsioa eginen da.

Beintza-Labaien ere kanposantua zabaldu eginen da, 526 metrotan. Guzira, 816 metro koadroko hilerria geldituko da. Aurrekon-

tu osoa 15,34 milioi pezetako da eta Nafarroako Gobernuak 4,80 ordainduko ditu.

Leitzan azkenik, 26,84 milioi pezetako aurrekontua izanen du udaletxea moldatzek.

EGUBERRIAK



JONIBA OLAGARAI

Eskualdeko bertze zenbait herritan egin den bezalaxe, azken urteetako ohitura-rekin segituz, Sunbillako guraso eta eskolako neska-mutikoek prestutako oientzeroa aterazten. Karrikaz karrika kantuan eta eskean aritu ziren. Bildutakoarekin berendua egin zuten eta Asteburu Kulturalerako haurrendako ekitaldiren bat antolatuko dute.

**2001-2003
hirurteko
Plan Bereziko
lanak onartu
dira**

ttipi-ttapa

2001-2003 Hirurteko Azpiegitura Plan Berezia onartu du Nafarroako Gobernuak. Eskualdeari dagokionez, Donamaiakour-hornidura sarea berritzeko 1.750.000 pezetako inbertsioa eginen da. Aranoko Suro auzoko zola berritzeko 7.515.000 erabiliko dira; Urrotzen, ur-hornidura eta ur-zikinen sarearen zati bat moldatuko da eta zolaberritza ere eginen da, 48.539.000 pezetako inbertsioarekin. Zugarramurdin, ekialdeko ur-zikinen sarea berrituko da, 38.057.000 pezetako inbertsioarekin eta Oitzen, ur-hornidura, ur-zikinen eta euritako uraren sareak berrituko dira, 45.813.000 pezetako aurrekontuarekin. Lan gehienak joan den urtean egitekoak ziren, Aranokoak ezik, aurten eginen baita.

Okindegia Jatetxeo

Uxoia

Pellets, leña, carbón. Tel. 945 42 34 63. 31730 ARRETAZU

■ Okindegian

- Ogi artasaua, eguneakoa eta txapata
- Jatetxean
- Menua eta karta (asteburuetan)
- Especialitate parrilan erretako jaketan



Enkargatuz gero,
bildotsa ogi-labeen erre.
Goxo-goxoa!

MEDIKUNTZA NATURALA NATUROPATIA

ONDORIOETATIK INDARTZEKO:

- Diabeta
- Astma
- Buruko miza
- Oien izeidia
- Larri zaharko alergia
- Zizareak
- Prostata, etab...

IKUSMENAREN
BERRESKURATZEA

- Miopia
- Bista alfer tua
- Estrabismo
- Begi lausok-kataratzak

GIHARRE
ARAZOAK

- Bixkortzes
- Artritis, erreuma
- Artrosa, lumbalgia
- Bihurdunak, etab...

KONTSULTA ORDUTEGIA

Goizez Petatik 12etara. Arratsaldez 2-Tetara. Ordus eskatu

San Marcial, 7-4 IRUN

GOIZUETA

Xumai Muruak eraman zuen seigarren Xalto Saria

Terreros lesakarra bigarren izan zen abenduaren 22ko finalean

Esteban AROTZENA

Nafarroa eta Iparraldeko sei bertsolari gazteren arteko lehia estu bat ondoren, Xumai Muruak eraman zuen abenduaren 22an ospatutako Xalto Sariaren seigarren edizioa. Estibux Arozenak, Xabier Silveirak, Xabier Legarretak eta Amets Arzallus sek osatzen zuten zerrrendan sartu da lapurtar gaztea, aipatutako hauek izan baitira sari-keta honen orain arteko irabazleak.

Ixtura polita hartua zuen eskolako jangelak bertsolariak kantuan ha-

si zirenerako. Esan behar da, guztiek lan txukuna egin zutela, baina Muruak ez ezik, Xabier Terrerosek –bigarren sailkatua– eta Oskar Estangak oraingoz bestek baino gehixeago dira erakutsi zutela. Dena den, saioa nahiko azkar joan zen eta garbi dago urtetik urtera Xalto Sariko partaideek maila hobeagoa dutela. Ez da gutxi Nafarroa-Iparraldeko txapelketa nagusiko finalistek sari-keta honetan ez zeudela kontutan hartzen baldin badugu. Nafarroako Bertsozale El-



Luisito SALABERRIA

Umore Ona elkarteko garbitasun lanetaz hamabi urte luzez arduratu ondoren, ongi merezitako jubilazioa hartu du Maria Pilar Arratiblek. Abenduaren 23ko baziideen eguneko bazkarian jaso zituen oparia eta bertan bildutako ehun lagunen txalorrik beroenak.

kartekoak esan ziguteenez, Andres Narbarte-en oroinmenean ospatzenten den bertso lehiketa honen hurrengo edizioa 2003. urtean izanen da, bi urtetik behin antolatzeko asmoa du-te, beraz, tartean, Lapurdiko Ahetzen Mattin Saria eginen delarik.



ARESO

Hainbat ekitaldi izan dituzte eskura haurrek Eguberrieta

Maitane Gereño igerilaria saritu zuten Tolosan

Juana Mari SAIZAR

Eguberri egun hauek hainbat ekitaldiz gozatu du-te: hirubideo emanaldi, Bilbora Eguberrieta Parkera egunpasa, Ollentzeroren etorrera, aisiaaldi egunak begiraleekin jolasten eta, bukatzeke, erregeen opaniak.

Okerrak zuzentzen
Maite Plazak eskatu

dio Nafarroako Gobernuari Areson lau orduz botikina irekitzeko balmena. Botikina eta guk aipatutako farmazia oso desberdinak dira, non-bait.

Maitane Gereño urteko kirolari onenen artean

2001. urteko kirolari onenei, Euskadiko txapelketan marka onenak jarri dituztenei eta Gi-

puzkoako selekzioan aukeratu zituztenen artean Maitane Gereño Igarondo klubean ari den igerilari aresoarrar omendu zuten Tolosan joan den urte bukaeran. Abraham Olanoren esku-kutik saria hartu zuen bere markarengatik: 100 metro crowl erara, minutu bat eta hamar segunduko denboran.

Zorionak eta segi ahaleginak egiten.



ARTXIBOKA

Duela hiru urte hasi zen Maitane Gereño Tolosa-ko igeriketa elkartean.

LEITZA

Kirolari eta kirolzale herria garela erakutsi dugu berriro

Barriolaren txapela eta Perurena gaztearen markak aipagai asteotan

Mikel ILLARREGI

Beste ezaugarriren artean, kirolarena eta kirolariena, hain zuzen, izan du nabari aspaldidanki herri honek. Gai mailako kirolariak badira, baina ezin ahaztu noski afizioz ere aritzen direnak. Dena den, nahiz eta maila eta ezauguoen maila ezberdinak izan, aurreneko horiei esker herriaren zabaltea ere eskertu behar diegu. Batzuetan bereziak eta herritasun kutsua dutenak gertatu dira, horra hor ekainaren 23a ospatutako Riaño eta Mintzoraren arteko aizkol txapelketa. Eta urtea ere hala joan zai-gu; erremontistak jardunean (Zestau, Gatztelu, Astibia), eskuzko pilotariak gora (Oinatz, Ibai eta Aitor Bengoeetxea, Iparra...), aspalditxo honetan isilago dauden Migeltxo Saralegi eta Ihaki Perurena. Hala ere, aipagarriena urte bukaeran heldu izan zaigu. Perurena gazteak (17 urte) bi errekor egin ditu, azkenekoa abenduaren 31n ETBren eskutik eskainitakoa, 180 kilo esku barker batez eta aurretik, abenduaren 16an, 240 kilo bi eskuz. Alpatu gabeko utzi noski, nehiz eta makina bat aldi zuki si dugun telebistan, egunkarietan... 23 urteko Abel Barriola gaztea. Gutxitan eta gutxik lortzen dutenen artean dago orain, bai pilota

munduari baita herritasun kutsuari dagokionez ere. Abel, Inazio... eta gainerako guztiak, aipatutakoak eta alpatu gabe geratu direnak ezer gutxi eta berria da go esateko: «Orain arteko jarrai», horixe da gure desioa.

Europako Batzordeak Sarrioi zigorra

Europako Batzordeak 52.195 milioi pezetako isuna ezarri die paragintzan ari diren hamar lantegie. Horietatik bat Leitzako Sarriola, eta honi 2.357 mi-

lioikoa ordaintza egoikitza zaio. Erabaki hau enpresa hauek prezioen gainekoak ordioa eta merkatuaren banaketa finkatu zutelako ezarri dute.

Iratbek 68 kontsulta
Iratbe kontsumitzale elkarrean 2001eko bilgarren seihilabetean 68 kontsulta erantzun ditu. Hilean bitan bulegoa zabaltsen du udaletxean eta horretaz gain Karraupe irratian hamabostero saliotxo bat betetzen du. Aurten, honekin batera, 15 txosten

ARANO

Arano mendia landatuko da, Juan Donosti eta Oraune bitartean

Kontxi KLABER

Aranoko udalak hogei eta hamar hektarea landatzeko erabakia hartu du, bertako zuhaitzekin (pago, harritz eta abar). Nafarroako Gobernuak egingo luke lan hau, Arano mendiko terrenoak ibi eta landatu.

Juan Donostitik hasi eta Oraune bitarteko lur eremuak landatuko litzateke, bai herri aldera eta baita Suro aldera. Noski, oinezibili nahi duenarentzat bide xenda dago eta txukunduta jartzea da asmoa. Gainera, bertatik jende dezentralizatzen da, batzuk kalbarioak egiten eta beste batzuk Arano mendia, "lehen kalbarioa", igotzen besterik gabe.

Sekulako bistak hartzen dira, bai Hernani eta Donosti aldeko baita inguruko mendiek ederki ikusten dira Aiako Harriak, Biantz, Urdaburu, Adarra, Mandoegi eta askoz gehiago.

BAZTAN

Urtero legez ilbeltzaren 17an San Anton eguna ospatuko da Elizondon

Aurten behia beharrean aratxea zozketatuko da

Rakel GONI

Aspaldiko ohiturada Baztanen San Anton eguna ospatzea. Animalien patroiaren eguna berezia izaten da baliaran. Frantzisko Jabier Iriarte Zahar Etxearen dako dirulaguntza lortzeko zozketa handia egin ohi da egun horretan. Aurten izanen den aldaketa lehenengo saria, behi bat zozketa-tu beharrean aratxea lokatuko zaiolako boleto sari-dunari. Bigarren saria zerri bat izanen da, hirugarrena bi bildots eta azkena magra bat.

Txopo landatzeguna Elbeten

Urtarrilaren 19an, lehenengo aldiz ospatuko dute elbetearek txopo landatzeguna. Aspalditik zebiltzan gogo honekin eta azkenik hilabete honetan gauzatuko da gogo hori.

Urtero bestetarako txopoa mozten dute gazteek. Bertalde, arbol hauek duten eritasuna dela eta, gero eta gutxiago daudela ikusi zuten aspaldi. Etorki-



RAKEL GONI

Hotz handia izan dugu abenduaren akabailan

Argazkian ikus dezakezuenez Oronoz-Mugairin dagoen termometroak 6 grado zero azpitik markatu zuen abenduaren 19an goizeko 8:30etan. Aitzineko egunetan -7an eta bajuago ere, ikusi zuten termometroa: a ze hotzak pasatu dituen galixuak! Aspaldiko partez ez genuen hainbertze hotz somatu. «Siberiako hotzak» gogor jo gintuen, errekok eta guzti hormatu ziren. Zorionez dena bere onera itzuli da, balina kasu, oraindik neguan gaude eta!

zunean txopo goratzearren ohitura mantendu nahi bada, zuhaitzak landatzea behar-beharrezkoa da. Besta egun honetan goizean erreka bazterrean txopoa landatuko dira, eta ondotik, herriko ostatuan,

posadan, baziaria eginen da. Izena jatetxean bertan eman daiteke. Herriaren batek bere lurretan txopo bat landatzea nahiko balu aski du herriko alkatearen garaia zuzentzea eta eskaera egitea.

Baztango Rugby Taldea

B.R.Tk denboraldiko hurrengo partidua urtarilaren 12an, larunbata, jokatuko du. Lekarozko rugby zelaian arratsaldeko 4etan, Tudelaren aurka.

PERTSONAIA



Iñaki Mihura

Korrikalari arraiozta-rak urtea ezin hobea akitu du. Abenduaren 23an Nafarroako Kopako lasterketan txapelduna izan zen Iruñean, junior mailan. Abenduaren 31n San Silvestre lasterketan, Nafarroako hiriburuan ere, 23. postua lortu zuen 2.500 korrikalarien artean! Horrez gain Mihurak, juniorrek egin beharreko marka hobetu zuen, auserki gainera. Hori dela eta, saritua izan zen. Iñaki Mihurak urtea nola akitu duen ikusita, 2002an garaipenak laster iritsiko direla ziur gaude.

Carlos Garaikoetxea Etxenike

abokatua
Aseguru orokorrak

t. 948581468 • 948580433
Frantziarako etorb. 12 •
Amezialde 3B • ELBETE



ZALDUBI

Martín Lizasoain Adanso

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligono • t. 948 580 562 WURTA



JATETXEA
t. 948 580 101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza

MENDI OSTATUA

Santiago 25 • t. 948 580 313
ELIZONDO

BAZTAN

Lehen inauteak ospatuko dira Orabidean urtarilaren 12 eta 13an

Arraiozen hurrengo asteburuan, urtarilaren 18 eta 19an izanen dira

Rakel GOÑI

Orabidea auzoa izanen da urteko lehen inauteak ospatuko dituena. Urtarilaren 12 eta 13an Orabideko gazteek baserriz baserri ibiliko dira, Joxe Angel Elizalde akordeolarriarekin. Urtero bezala gazteek puskak bilduko dituzte, eguna akitzerakoan Etxeberzean afari ederra egiteko. Arraiozen urtarilaren 19 eta 20an izanen dira inauteak. Zenbait herri tan inauteetako datak ezartzeko, akordeolarriak libre diren egunetara moldatu beharko dute. Herri gehienak otsailaren 2. astean izanen dituzte inauteak.

Ikastetxeen informatzialeak

Xauli Gazte bulegoak egindako deialdiaren ondotik honako hauek izandira ikastetxeen informazio guneeetan lan eginen dutenak: Maria Torres Ustariz, Elizondo BHI, Maialen Sobrino Lopez, Lekaroz BHI; Cristobal Zelaieta Oharri, Lekaroz BHI eta



JONATHAN SINDARTE/ELKES

Baztango Rugby taldea Nafarroako ligan ematen ari den maila gero eta hobea da. Aurten osatu berri duten taldean, Ultzama, Iruña eta Baztango gazteak ari dira gehienbat eta hauen jokoa hobetzen daie egunez-egun. Rugby taldeetan, hegoaldean batez ere, beti jendea eskas da, beraz taldean sartzea gogoa izanez gero atea irekiak daude. Baztandarrak ortziarero biltzen dira Lekarozko rugby zelaian entrenatzeko, jokatzeko gogoa izanez gero aski da harat joatea. Bertzela ere informazioa eskuratzeko deltu 948 580 169 (Mariano) telefonora.

Idola Sobrino López, Lekaroz BHI, ikasle batzuk, 60.000 pezeta ko lansaria eskuratuko du ikasturtean informazio lanak egiteagatik. Kurtso bukaeran txosten bat aurkeztu behar-

ko dute egindako lana azalduz. Erakunde desberdinek parte hartu du te dirulaguntzetan, Baztango Udalaren Kirol, Astibaldi eta Gazteri sailak laguntzaren %50a ordainduko du (120.000

pezeta) eta gainontzkoak Elizondo - Lekarozko BHIko guraso elkarreka. Informazio guineak jartzeko tokia eta materialak Elizondo - Lekaroz BHIk eskaintzen du.

FLASH

Soroak moldatzeko laguntzak

Nafarroako Gobernuko Nekazaritza, Abeltzanza eta Elikadura departamendua, Baztanbulego komunak eta Baskonia Euskadiko Bektaritzarako proiektua onartu du. 7,5 hektarea luberritzeo, eta era berean, bi arketa, bi aska eta 1.100 metrotan ezañik diren tuberentzako, 6.000.000 pezeta onartu dira. Dirulaguntza honen %60a Nekazaritza Departamendua emanen du.

Mariano Izeta beka eman gabe gelditu da

Baztango Udalak aurkeztutako Mariano Izeta beka deladia eman gabe gelditu da. Epaimahaiaren aburuz aurkeztu diren 3 proposamenek ez zuten kalidadearen atalean eskatutako betebeharrauk betetzen.

Ikastolako parkea moldatzzen ari dira

Baztango Udalak 3 milioi pasa bideratu ditu ikastolako Parkea moldatzeko. Egoera kaxkarrean zegoen toki honetan, egunero haur auñiz ibiltzen dira jostetan aritzera. Mitxelena enpresa da obren arduraduna. Epe laburrean espaloia eginen dira. Ikastolako parkera sarrerak, moldatuko dituzte eta kolunpio berriak jarriko dituzte bertzeak bertzeak.

ANTXITONEA
Trinketxea

Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketxea

Menu Bereziak
Baudilio Iriarte
ELIZONDO
0948 581807 • 948 581853

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI
Santiago, 68 • 948 580839
ELIZONDO

**MERKEALDIAK
OHAL ETA
NEGUKO ARROPATAN
IÑAUTERIETAKO TELAK**

MENDIALDE
Jatetxea

AMAIUR • 948453060

SARA

Abiadura ttipitzeko lanak egin dira gaineko eskolaren parean

Olentzero hiru ikastetxeko haurrekin izan zen bigarren urtez

Aña Mari eta Fred

Joan den hilabetean obrak eginak izan dira gaineko eskolaren parean eta bidea moldatua eta goitua izan da, autoen abiadura ttipitu nahiz. Erran behar da ibilgailuak aski fite ibilki zirela eta arriskua handia zela eskola sartze-ateratzetan dabiltsan haurrentzat. Obrak gus-
torekin eginak izan dira eta ez dira agertzen ber-
tze leku batzuetan diren konkor horiek. Geroak erranen autoen eme-
kiarazteko aski izanen den...

Olentzero hiru ikastetxeetako haurrekin

Joan den abenduan 21ean, bigarren urteko, Olentzero bere karrroarekin menditik jau-
tsi zen herriko plazaren bidea atxemanez. Herriko hiru eskoletako haurrek ongi torria egin zioten kantuz eta soinuz, ondotik erreboretik abiatu eta plazan barna



Abenduaren 31n, azkeneko lau urteetan bezalaxe, Sara eta inguruko herriek 40 bat lagun Sarako plazan elgarretaratu ziren presoen Euskal Herritarrean galdeztu.

ibili ziren. Haurrek lo-
riatuak etxerat joan zi-
ren eskuak Olentzerok eskainitako goxoekin.

Bertzalde, gaineko eskolako haurrek ikas-
tetxeiko bidea hartu be-
zain fite elurretara joan beharrak dira. Tikiak aparte, eskolako 57 ha-

rek Gourette herrian lau egun pasatuko dituzte.

Presoen aldeko elgarretaratzeara Urtexaharrean

Abenduaren 31n, az-
keneko lau urteetan be-
zalaxe, Sara eta inguruko herriek 40 bat

lagun Sarako plazan el-
garretaratu ziren pre-
soen Euskal Herritarrean
galdeztu. Gure herrian zorionez ez baldin ba-
dugu presorik, Fernando Arburua zugarramurdiarra oraindikan
presa da, bertze hain-
bat lagun bezala.

FLASH

Joko Berri txapelketa

Sarako Izarra pilota el-
karteaek 8. esku huska-
ko joko berri txapelke-
ta antolatzen du poliki-
roldegian. Urtero beza-
la, lau sail desberdin izan-
nen dira, izenak eman-
ten ahal dira elkarteko
arduraduneri deitzu le-
hen bai lehen. Txapel-
keta hilabete hunen
hondarrean hasi beha-
rra baita.

Pala mekanikoa erosi du Herriko Etxeak

Herriko Etxeak pala me-
kanikoa baterosi berri du
bere zerbitzu tekniko-
entzat. Eginak izan di-
ren bortz proposame-
netarik, Kubota marka-
ko tresnaren hartzera
erabakia izan da.

Elkarteetako arduradunek hurrupaldia Herriko Etxean

Heldu den urtarriaren 11n, arratseko 7etarik goiti, Herriko auzape-
zak eta kontseiluak Sa-
rako elkarteetako ardu-
radunak gomitzen di-
tuzte hurrupaldi baten
hartzerat Herriko Etxean.
Karia hortarat, Jean Aniotzbehere-k
usaiaiko urte berriko
agiantzak eginen ditu.

Elkartasun kanpainia

Joan den buruialan Ok-
zitaniako Tolosan ger-
tatu A.Z.F. Iantegiaren
leherketaren ondoren,
Frantziako auzapezen
elkartea elkartasun
kanpainia bat abiatu du
kalteuen aldeko dinua
biltzeko. Ondorioz, Sa-
rako Herriko Etxeak
762,25 euro ematea de-
liberatu du. Tolosarrek
estimatuko duten la-
guntza, zalantzak ga-
be.

**HERRIKO
ETXEO
EDANTEGIA**

CAFÉ DE ANATE

MAIZAN ETA VÍRONIQUE
SARA • Tel. 0559542519

**BEINTZAKO
OSTATUA**

E MAIZA BEINTZALAIAREN

Landibar ZENTRO KOMERZIALA
URDAZUBIN

VENTA FIEL RESTAURANTE

300 m² perfume markak ozagunetekin
Usain-onak, kosmetikoa...
Lanbide teknika presidenteak, labarrekoak
• (0034) 948 599 400 • EGUNERO IREKIA

AZKAIN

Eskolako puxkak eskaini dizkiete Senegaleko haurrei

Maider Laduche herriarrok «Sénegazelle» lasterraldian parte hartu du. Han herriz herri ibili dira binazka: batto lasterka, bertzea biziak, bertzeak, orotarat 12 km-ko 6 etapa ziren. Joan aintzin Maider Santa Mariako ikastetxeko haurren ikustearat joan zen eskolako puxka batzuen biltzeke. Puxka horiek Sene-galeko herrietan banatzen dituzten (380 kg orotarat). Azkainerat itzultzean han ikusia kondenatuko zizkiela hitz eman die herriko haurrei.



Maider Senegalak.

Aratz Madridetik Asturiasetarat eraman dute

Sententziaren beha dagoela oraino, Aratz Alcalá Meco presondigetik Oviedo alderat eraman dute Asturiasetarat. Madridetik baino hurbilago baldin bida orai, denbora gehiago behar da haraino jokateko, bidea menditsua baita. Aratzen helbide berria hau da.

Aratz Gomez Larrañaga
Villabona CP
Finca Tabladillo Alto
33071 Asturias.



Errugbi zelai berria estreinatu dute

Jean Michel Gonzalez eta Gabi Ibarburu izan ziren ekitaldian

Ihintza, Angela eta Eneko

Joan den uztailean berritzen hasiziren errubbi terreno estreinatua izan da abendoaren 13an. Jende aintz bildu zen gertakarienatzat eta kirolari ospetsuak gomitiatuak izan ziren. Jean-Michel Gonzalez errugbilari internazionala eta Gabi Ibarburu berrikitan munduko pilota xapeldun izana. Pierre Camou, Euskal Kosta eta Landesetako errugbi komiteko lehen-dakariak Azkaingo herria zoriondu zuen kirolari gazteentzat eginak izan diren lanengatik.

Jean-Louis Laduchek Kontseilu Orokorra eskerdu eman duen dirulaguntzagatik. Gabik eta Jean-Mixelet matxako lehen oxtikoa eman zuten. Azkaindar jokalariek matxa irabazi eta, zelaiaren kalitateaz bizi ki satisfos agertu dira.



Elgarrekin taldeko haurren krakada

Elgarrekin elkarteko saila guziak bildu ziren abendoaren 29an arratsaldearekin: Errugbia, saski-baloia, teniza eta atletismoko haur eta laguntzaile gehienak etorri ziren. Elgarrekin lan egiteko xedea erautsi dute aurten. Kirola eskola bat muntatu dute, haurrek kirola guzietarik jasta dezan eta saila desberdinaren arteko konkurenzia ez izateko.



PERTSONAIA

Kiki HIRIBARREN

«Finala da orain gure helburua»

Sasoinaren lehen za-tia nola iragan da? 6 rugbi talde ginen, lehen 3 taldeak lehen mailako xapelketa jokatuko dute eta berts 3ek 2. mailakoa. Gu 4. ateratu gira, beraz 2. mailan aritu gira. Leh-en emaitzak ez dira hain onak izan jokalaria eskas baitziren (lana-rengatik). Ondotik taldea zabaldu da eta azken matxak hobea-goak izan dira.

Nola ikusten duzue segida?

Finalaraino arribatu nahi genuke. Berri zere 5 talderen kontra artu beharko dugu. 2 azkenak 3. mailarat ja-tsiko dira ondoko urtean, 4 lehenak euskal kostako xapelketan hasiko dira. 2 finalistik Frantziako xapelketan parte hartuko dute.

Zoin izanen dira matxa zailak?

Arrangoitzeko taldea ongi dabil. Jokalariek gazteak dira eta ongi ari dira. Derbi hori izanen da importanteena.



BAZTAN

ALTZARIAK

zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estilo mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztai eta gerezti egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

Harristche
ARTESAN
GOZOTEGIA OKINDEGIA
SARL ETXE-ONA
AZKAIN
Tel. 59 54 01 67



EZKONTZAK

Marcos Etxaide Sanzberro eta Blanca Lopez Uriz, Elizondokoak, abenduaren 8an.

Juan Muñoz Hernandez eta Marta Feliisa Alonso Clerigue, Erratzukoak, abenduaren 17an.

Jose Javier Igoa Portu eta Mª Montserrat Fontan Lago, Lesaka eta Pasai San Pedrokoak, azaroaren 22an.

Jorge Ayala Fernandez eta Lorenza Sanchez Fernandez, Lesaka eta Los Palacios-ekoa (Sevilla), azaroaren 24an.

Jesus Mª Goizueta Biurruneta eta Fabiola Taberna Zubiria, Arantza eta Lesakakoak, abenduaren 8an.

Xabier Eratsun Grajirena eta Leire Ortoste Garcia, Doneztebe eta Gasteizkoak, abenduaren 22an.

Mikel Mitxelena eta Itziar Arburua, Zugarramurdiakoak, abenduaren 27an.

David Claussell eta Madjiguene Diouf, Azkainoak, abenduaren 22an.



JAIOTZAK

Oier Ariztegi Elizondo, Lekarozkoak, abenduaren 10ean.

Asier Juanenea Labaien, Leitzakoak, abenduaren 18an.

Jon Etxenike Prieto, Berakoa, abenduaren 13an.

Ainara Pacheco San Julian, Berakoa, abenduaren 15ean.

Leire Pagadizabal Igartzabal, Lesakakoak, azaroaren 30ean.

Ania Kattin Oronoz, Sarakoa, abenduaren 7an.

Laure Calvet, Sarakoa, abenduaren 12an.

Lena Agerre, Sarakoa, abenduaren 15ean.

Olala Errandonea, Sarakoa, abenduaren 19an.

Lucas Jean-Pierre Genest, Azkainoak, azaroaren 11n.

Marie-Clara Genest, Azkainoak, azaroaren 11n.

Julie Breton, Azkainoak, azaroaren 13an.

Lizie Urdanpilleta, Azkainoak, abenduaren 11n.

HERIOTZAK

Bautista Soule Etxeberria, Arizkungoa, abenduaren 17an, 89 urte.

Maria Mitxelena Kapandegi, Amalurkoak, abenduaren 20an, 80 urte.

Julian Salaberri Aintziburu, Elizondokoak, abenduaren 21ean, 92 urte.

Nicasio Karrikaburu Bulman, Arizkungoa, abenduaren 22an, 82 urte.

Angel Sarasola Inda, Elizondokoak, abenduaren 23an, 83 urte.

Agapita Mina Arbeloa, Elizondon, abenduaren 21ean, 95 urte.

Estanislao Etxeberria Etxenike, Amalurkoak, abenduaren 24ean, 90 urte.

Florentino Jaunarena Mindegia, Beintza-Labaiengoa, abenduaren 11n, 78 urte.

Narciso Irigoien Igoa, Lesakakoak, urtarrilaren 1ean, 83 urte.

Maddi Organbide Gurrutxaga, Urduzibikoa, abenduaren 29an, 90 urte.

Jose Otxandorena Baleztena, Doneztebekoa, abenduaren 25ean, 74 urte.

Jose Agustin Etxarte Insausti, Legazkokoak, abenduaren 11n, 80 urte.

Juliana Zubieta Golenetxe, Etxalarkoa, abenduaren 28an, 89 urte.

Pakita Elizalde Danborriena, Etxalarkoa, abenduaren 31n, 89 urte.

Xemartin Berruet, Sarakoa, abenduaren 16an, 93 urte.

Renée Amélie Leonie Delahaye, Azkainoak, azaroaren 17an.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
SERVICIOS FUNERARIOS DEL NORTE, S.L.

TANATORIO BAZTANDARRA

Santiago 52
ELIZONDO

Batzan, Bertizarana,
Urdazubi eta Zugarramurdin
24 orduko zerbitzuak
tanatorioan eta etxearen
prezio guzietan

0 900 704704
0 948 581959



**Don Julian
SALABERRI AINTZIBURU**

apeza

Esker mile Elbeteren alde egin
dizun lanarengatik
eta gurekin eman dituzun
egun eder horiengatik.

ELBETEKO GAZTEAK.
Elbeto, 2001eko abenduaren 21ean



**Maite
ERRANDONEA ZUBIETA**

Beti irrifarrea zenuen lagunmin
gauza denen gainetik aitzinerat ekin
bizitzari helduaz gogo guziekin
indar hau utzi diezu betiko gurekin
maite izan zaiztagun familiarekin.

FAMILIA.

Mila esker une latz hauean
gurekin egun zarsten guziei.



Asier ARZALLUS *Euskaldun saskibaloia jokalaria*

DATUAK...

- **Asier Arzallus Bil** leitzarrak 18 urte ditu eta 2,03 metro neurten du. Gasteizko Tau-Baskoniako bigarren taldean jokatzen du, pibet postuan, baina lehenbizikoarekin ore minuto batzuk jokatu ditu.

- Hamaitau urtetan hasi zen saskibaloian, Tolosako kadete mailako taldean. Handik bi urtera Gasteizera joan zen, Baskoniarekin aritzera.

- Eterkizunera begira ez daki taldean segituko duen. «Lehen taldera pasatzea oso zaila dago, baina pixkanaka pixkanaka ikasten joatea eta saltua emtua gustatukoitzalduke».

«Ez da errexoa TAU bezalako saskibaloitako batean euskaldunok lekua izatea»

Aitor AROTZENA

Kirol arloan pilotaria eta herri kirolengatik ezaguna da Leitza. Baina saskibaloian goi mailan jokatzen duen kirolaria ere badute, Asier Arzallus: «Pixko bat arraroa da, bai. Leitzan pilotan, aizkoran, harrijasotzen, futbolean aritu da jendea, baina saskibaloirik ez da inoiz egon. Ni Tolosan hasi nintzen 14 urterekin, kadele mailan. Bi urte egin niftuen eta handik Gasfeizera». Normalean Baskoniako bigarren taldean jokatzen du, baina Dusko Ivanovic-en esanetara ere jokatu ditu minutu batzuk. «Aurten aurredenboraldi osoa egir dut lehenengo taldearekin. Adiskidantzazko partidu bat edo beste ere jokatu dut, jendea falta duteenean. Talde oso ona da, jokalarri guziak bikainak dira eta neretzat garantzitsua da hor sartzea». Talde nagusiarekin entrenatzenduenean, hain mella handiko jokalariekin asko ikasten duela dio leitzarrak: «Entrenamenduak oso diferenekoak dira, inten-

Nafarroan ez dago talderik goi mailan eta horregatik ez dago saskibaloirako afizio handiegirik. Gasteiz aidean, ordea, TAUren arrakastaren ondorioz talde pila bat daude.

tsitate handia dago eta ikasi egiten da». Kirol honetan ez dauka idolorik Arzallusek, baina Michael Jordan gustatzen zaiola aipatu digu. «Mitoa izan da, baina bestela ez dut bereziki gustatzen zaidan jokalaririk».

«EUROPATIK AMERIKARA JOATEN DIRENAK EZ DIRA ATZEAN GELDITZEN»

Kataluniarbat, Espana Batuetakoak, italiarrak, argentinarrak, jugoslaviarrak, frantziarrak, lituaniarrak... badirudi euskaldunek ez dutela leku sobera Tau-Baskoniako taldean. Asierren ustez, «zalala da taldean sartzea, baina salatzen gara ahaz duguna egiten. Atzemita-

mengana josten dute talde gehienek eta Tau da gehien dituena. Lehen taldean, kataluniar bat dabil eta gainerako guziak atzerritarra dira. Europa goi mailan aritzeko atzerritarra beharrezkoak dira, baina ez dakin denek halak izan behar duten».

Pau Gasol kataluniarbat Espana Batuetako NBA izaten ari den arrakasta hizpide hartuta, Europa eta Amerikako saskibaloaren arteko aldea murizten ari dela uste du Leitzako pibotak: «Saltoa bada, baina azken aldian joaten diren jokalariek oso ongi ari dira. Europa gero eta maila altuagoa dago eta Ameriketara joaten direnak ez dira atzean gelditzentz».

Gure inguruan ez dago saskibaloitako batean euskaldunok lekua izatea», gure inguruan ez dago saskibaloitako batean euskaldunok lekua izatea. Kataluniarbat, Espana Batuetakoak, italiarrak, argentinarrak, jugoslaviarrak, frantziarrak, lituaniarrak... badirudi euskaldunek ez dutela leku sobera Tau-Baskoniako taldean. Asierren ustez, «zalala da taldean sartzea, baina salatzen gara ahaz duguna egiten. Atzemita-

HERRI KIROLA

Nafarroako txapel guziak lortu ditu Beti Gazte sokatira taldeak

Euskal Herriko txapelketan asteburu honetan hasiko dira lesakarrak

Ez zen ezusterik izan joan den urteko Nafarroako sokatira txapelketan eta Lesakako Beti Gazte taldeak jokoan zeuden lau txapelak arazo handiegirik gabe bururatu zituen. Herrian berean lortu zuten lehen txapela, 680 kiloko, azaroaren 17an. 640 kiloko txapelketa janzteko, azaroaren 24an Atarrabian eta abenduaren 2an Burlatan jokatutako bi saloetako tiraldi guziak bereganatu zituzten. Bertze horren bertze egin zuten 600 kiloko kategorian, abenduaren 6an Berriozarren eta abenduaren 15ean Latasan burututako saioetan.

580 kiloko txapela, azkenik, abenduaren 22an Txantrean egin-dakosaibakarrean lortu zuten lesakarrek. Gisa honetara, joan den urtean bezala, Nafarroako txapel guziak jantzi dituzte. Honela, borrokariak handienak azpi-txapelketa lortzeko izan



Aitor AROTZENA
Beti Gazteko sokatira taldea jaun eta jabe izan da Nafarroako txapelketan.

dituzte Imotz eta Txantrreak.

Nafarroakoaren ondotik, Euskal Herriko goma gaineko txapelketa prestatzen ari dira orain Beti Gazteko tiralariaiak.

Lehen saloak asteburu honetan eginen dituzte. Ondotik, otsailaren 21 eta 22an Irlandan eginen den Munduko Klub arteko txapelketan parte hartu nahi dute.



Mikel Pernaute

Banakako paleta-goma txapelketa irabazi du Oronoz-Mugairiko pilotariak. Abenduaren 23an jokatutako finalean, Vicente Noainek min hartzeta eta txapela Pernauerentzat izan zen. Banaka lehen aldiz irabazi badu ere, binaka hirutan izan da txapel-dun oronoztarra.

Ander Agesta

Ezin izan zuen aurrelaria arantzarrak DV-Tele5 txapelketa irabazi. Argotegi bere atzelaria nerbioek lotua kantxaratu zen eta Anderrek ezin izan zuen gauza handiegirik egin. Gainera, Ubera II eta Laskurainek bikote polita osatzen dute. Abenduaren 16an, aldiz, Huarteko lau terdiko txapelketa irabazi zuen Agestak, 23 urtez beheitiko kategorian. Finalean 22-13 irabazi zion Erreari.

PILOTA

Lau terdiko txapela lortu du Abel Barriola leitzarrak

Hamar tantutan utzi zuen Patxi Eugi

Urtea buatzekormo du ezin hobe aukeratu zuen Abel Barriolak eta lau terdiko txapela jantzi zuen abenduaren 23an Ogetan, Patxi Eigurengainetik pasatu ondotik. Hamar tantutan utzi zuen agoitzarra eta profesionalaletan lortu duen lehen txapela era-

man zuen Leitzara. Aurrelik, aita zenari eta Unai Arzallus zenari eskaia zien txapela.

Buruz buruko txapelketa nagusian bezalaxe, behe-behetik hazi zen Barriola lau terdikoan ere. Buruz burukoan finalerdi taraino allegatu zen eta lanak

eman zizkion txapeldun izan zen Belokiri. Lau terdikoan, berriz, Bera-saluze VIII, Patxi Ruiz, Errandonea, Alustiza, Lasai III... parean jarri diren guzziel irabazi ondotik. Patxi Eugi bera mendean hartu zuen finalean. Hori dena lortu arren, hasiberrien kon-



DIARIO DE NAVARRA
Abel Barriola pozik, profesionalaletan lortu duen lehendabiziko txapela erakutsiz.

tratuarekin eta binakabokaoelketan parte har-tuko duen jakingabe se-gitzen du Barriolak.

AGENDA egunez egun

INAUTERIAK

DIADEDEA

Urtarrilaren 12 eta 13an baserriz baseri ibiliko dira puxke blitzzen gazteak. Joxe Angel Elizalde akordeolarriarekin. Eguna akitzairekin Etxebertzean eginen dute afaria.

OSPAKIZUNAK

ELBETE

Urtarrilaren 19an txop landatze eguna ospatuko dute lehen aldiz elbetearek. Goizean txopak landatu erreka bazterrean eta posada baxkaria. Izenematea jateko berean.

SARA

Urtarrilaren 11n arratseko 7etik goiti, Herriko auzapezak eta kontseiluak Sarako elkartetako arduradunak gomitatzen dituze hurrealdi baten hartzerat Herriko Etxean.

ZINEMA

LEITZA

Urtarrilaren 11n 22:30etan «La pianista» filmea. Urtarrilaren 13an 19:30etan «La pianista» filmea. Urtarrilaren 18an 22:30etan «Nueve reinas» filmea. Urtarrilaren 20an 19:30etan «Nueve reinas» filmea.

KIROLA

SARA

Esku huskako Joko Berri txapelketa antolatu du zortzigan aldiz Sarako Izarra pilota elkartek polikiroldegian. Izen ematea lehenbailehen egin behar da, arduradunak deituz.

BERA

Urtarrilaren 13an Bera-Goiueta mendi irtarea. 7etan Agerra mendi taldeket irtarea. Autobusa ere bada.

GIDA 2002

Zure datuak zuzentzeko edo publizitatea kontratatzeko, deitu
948 63 11 88
telefonora



ESKUALDEKO TELEFONOAK BATERA

2002. urteko Telefono Gida prestatzen ari gara

Baztan, Bortziriak, Leitzaldea, Mallerreka eta Urdazuri inguruetan dauden herrietako Telefono Gida 2002 prestatzen ari gara. Azken urteetan bezalaxe, herri guzietako ofiziale, merkatal-ebte, lantegi eta beste hainbat zerbitzuren berri aurkituko dituzu. Praktiko eta behar duzunen lagungamia izan dadin egin dugu lan hau. Dauden zerbitzuguztiak biltzea izan da gure nahia. Hala ere, zeurea bertze urteetan ez bada agertu edo akatsen bat ikusi baldin baduzu, jakinarazi faborez, lehenbailehen 948 631188 telefonora deituz. Oraindik tenorez zabiltza!

Bilatzen duzuna errazago konsultatu eta aurkitu ahal izateko, aktibitatea diferenteak alfabetoa

segituz ordenatuak daude eta Gaztelera/Euskara, Frantsesa/Euskara hiztegi erabilgarriak izanen dituzu eskura.

Bertzalde, joan den urtean bezalaxe, Partikularren telefonoak ere bildu ditugu. Bakar-bakarrik titularen izenak sartu ditugu. Horregatik, gerta daiteke guk bilatu nahi dugun izena ez topatzea (emaztea, seme-alabak...). Egoera hori moldatzeko aukera duzu oraindik, 948 631188 telefonora deituz eta sartu nahi duzun izena adierazi. Gainera, gaur egun gero eta gehiago erabiltzen diren sakelako telefonoen zenbakiak ere sartzeko aukera zabaldu nahi duzu. Horretarako ere lehenbailehen deitu behar duzu.

DISKAK

OSKORRI



«Vizcayatik... Bizkaiera»

Oskorri

ELKARLANEAN

«Vizcayatik... Bizkaiera» Oskorritakoaren azken diskoaren izenburua da, Eliseo Parraren produkzioaren zuzendaritzapean, moldaturiko lana. Diskoa, festarako, dantzarako eta bat-bateko gozamen ludikorako eginga dago. Diskoaren oinarria Xabier Amuriza bertsolariak bildutako Bizkaiko kopla herrikoak dira, bertan (15 kantu) aurkezten dira. Kolaboratzileen artean, talde-kideez gain, Eliseo Parra bera, Kepa Junkera eta Michel Bordeleau (la Bottine Souriante) nabarmenzen dira. «Vizcayatik... Bizkaiera» disko honek badu beste zenbait ezaugarri ere: Oskorrik estudioko zuzeneko saioetan grabatu du. Honeri esker diska egiazko doinu natural eta beroaz janxtea ekari du. Era berean si-nesgamitasunez janitztu «Vizcayatik... Bizkaia» diskaren musicalitate guztia.

BASERRIA



Zerrikumea
(19 kilo): 4.400 pta.

Zerri gizena
(95-100): 159 pta/k.

Zerramak:
85/87 pta./kiloa, bizirk.



Aretze gizenak:
Idixkoak: Pta/kg. Kanal

Extra 585

1.koa 565

2.koa 545

Urruxak: Pta/kg. Kanal

Extra 585

1.koa 575

2.koa 555

Datu Iturria: NAFARROAKO GOBERNUA
(Abenduaren 14tik 21erako prezioak)

Oharra: Prezioak: 200-230 Kg. kanalean pisa-tzendenetaren zetarenak dira.

Aretze tikiak

(15 egun inguruak):

Nabarrak: urruxak

36.000 eta idixkoak

29.000 Pta.

Mestizoak: urruxak
36.000 eta idixkoak
34.000 Pta.

Zaldikoak: Pta/k

Sortuberriak: 500/510

Zaldi-behorak: 320/330

Bildotsak: Pta/k

6-8kilokoak: 1.225-1.275

8-10kilokoak: 1.100-1.150

JAKIN BEHARREKOAK



Euresia edo ohatzea bustitzea

Haur gehienak 3 urte dituztenean ohatzea bustitzeari uzten diote. Adin horretatik goiti haurrak ohatzea bustitzen segitzen duenean, gurasoak kezkatzen hasten dira. Haurarentzat ere arazo handia ez baitu nahita egiten. Lotza sentitzen dute eta autoestimua galtzen dute. Kontutan hartu beharreko da ere arazo honen ondorioz, haurrak etxetik kanpo lo egitera joateko arazoa izan ditzakeela, halika nola, udalekua eta.

Euresia uste baino arruntagoa da eta bi mota desberdin daude:

-Lehen mailakoa: Inoiz pi-

**Ohatzea bustitzaren
zergatiak, gehienetan
ez dira fisikoak,
emoziozkoak baizik.**

xaren kontrolik egon ez deunan.

-Bigarren mailakoa: Enuresiak gabe tarte bat pasatuta, berriz agertzen denean.

ZERGATIAK

Gehienetan euresiaren zergatiak, ez dira arazo fisikoak, emoziozkoak baizik:

-Beldur edo segurtasun ezak.

-Familiako norbaiten galera, edo maite dugun norbaitena.

-Familian haurtxo berri baten

etorrera.

-Familiantean egon daitezken arazoak.

TRATAMENDUA

Tratamendua 5-6 urtetan hastea gomendatzen da.

- Famili barruko erlazioak aldatzen salatzea.

- Ahokularitzaz motibaziona.

- Zigorraz eta haserraldiak saihestea.

- «Pipi-stop» aparailuak eraibili.

Tratamendu guztiak profesional batek emanen ditu.

Rakel Amigo
Bortzirietako Gizarte Zerbitzuak

LIBURUAK



AGUR DARWIN

Jon Alonso

Pamiela

Aurten aurrenekoz antolatudun Juan Zelaia sailakera sariaren lan irabazlea Jon Alonsoren «Agur, Darwin, eta beste arkeologia batzuk» izenburuko liburuak ekan dugu gurera. Alonsoren lan horrekin, sailakera laburrak blitzeko sortutako Upaingoa izeneko saila, hasi du Pamielako argitalebxeak.

Agur Darwin, eta beste arkeologia batzuk obran zapta sailakera labur bildu ditu Alonsok «Agur, Darwin...» bera, «Nafarroa Sizilia da», «Traidorea-

ren eta heroiaaren gala», «Ardo ezina (asmazio kaltebako baten kronika)», «Asmazio kaltegari baten ajeak», «sendabelarrak eta bestelako ortopediak» eta «Medeak bere seimeak hil nagi ditu?» izenburuak. Gure hizkuntzaz, literaturaz eta herriaz gogoeta egin dezagun idatzia du Jon Alonsok lan hau. Egile nafarrak eztabaida sortzea izan du helbururik nagusiena. «Agur, Darwin eta beste arkeologia batzuk labarekin.

AGENDA egunez egun

ANTZERKIA

BERA

Urtarrilaren 13an Berako Emaitza antzerki taldeak «Edurnezuri» tauraratuko du berri ere Kultur Ebearan, arratsaldeko 5etik aitzinera.

ERAKUSKETAK

NEHA

Urtarrilaren 11tik otsailaren 2ra 2004. urtean Iratxeko monastegian irekiko den Julio Caro Baroja museo etnologikoaren aurkezpena Berako Kultur Ebearan. Nafarroaren iragana ezagutzeko modu polita.

OSPAKIZUNAK

LESAKA

Urtarrilaren 17an eta 20an San Anton eguneko meza eta ospakizunak Endara auzoko baselizan.

ELIZONDIO

Urtarrilaren 17an San Anton eguneko zozketa, Frantzisko Jaber Iriarte Zahar Ebearren alde.

ZUBIETA

Urtarrilaren 17an San Anton eguna.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Urtarrilaren 27tik 15ra

Etxalar, Narbarte, Irurita eta Goizueta.

Urtarrilaren 14tik 20ra

Bera (A. Lasaga, Bidasoa 43), Doneztebe (Mendia, Merkatarien k. 1), Leitza, Goizueta eta Elizondo (Leizaun).

Urtarrilaren 21tik 27ra

Arantza, Sunbillat, Arizkun eta Goizueta.

ZEINERRAZA DEN ZURE ANUNTZIOA HEMEN JARTZEA

948 63 11 88

**...ETA GAINERAKO
ZURE BERRI
ESKUALDEKO
ETXE GUZIETAN
IZAMEN DUTE!!**

Bei honetan partikular, profesional eta merkatarian informazio eta zerbitzuak ematen da. Ttipi-ttapaak ez du bere gain hartzten argitaratuak dinen izagarkien ondorioz sortzen zaien denei operazioen erantzunkizunak.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errrentan emateko
- 104. Errrentan hartzeko
- 105. Ebte konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errrentan emateko
- 110. Errrentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errrentan emateko
- 115. Errrentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/igeitseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademikak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Talierrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurruk

MERKATU TTIKIA

Merkezko merkatala, jarduerak, 0,30 €/t. (elizentzako) Zertzaibide
Ttipi-ttapa, telefondatik, e-mail, agertutako de marka izendatzen aritzeko
0,30 €/t. Rural Kostaburu-30000 (0088 87 07222046296) Kostaburu marka
jarduerak. Nahi-kapera igarotzea, tasaak aldiu zintzituzte.

ETXEBIZITZAK**101 Saldu**

BERA. Pisua salgal Age-rran. Eguzkitsua, iogailu, sotoa eta kalefakzioarekin. Sukalde ekipatua. Bajerarenkin edo gabe. = 652 705 556 • 948 630 885

BERA. Pisua salgal Logia, 53 - 3. = 896 753 366.

BERA. Pisua salgal San Estebanen, trastero eta garajearekin. = 626 097 128

BERA. Pisua salgal Kanttonibeni leean. = 948 631 049

(6etatik aitzin) 948 630 532

BERA. Pisua salgal Eztegara Pasealekuaren, hirugarraren pisua, eguzkitsua, 125m². = 948 630 251 • 679 526 401

ELIZONDO. Pisua salgal Brailio Iriarte karrikan. Mobeztatua eta berriztatua. =

667 418 661

GOIZUETA. Pisua salgal, berria, trastero eta kalefakzioarekin. 948 514 036

IGANTZI. Pisua, garagea eta sotoa salgal. = 948 637 645

LEITZA. Pisua salgal Armatzabalen. 90m². = 948 510 535

ETXEBIZITZAK**104 Errrentan hartu**

BORTZIRIAK. Pisua errrentan hartuko nuke. Ez oso garegia. = 617 691 370

GARAJEAK/LOKALAK**107 Saldu**

DONEZTEBE. Aparanen 75 m²ko nabe pabilloia salgal, 55m²ko bigamen plantarekin. = 948 450 906

GARAJEAK/LOKALAK**109 Errrentan eman**

BERA. Zalainen 200m²ko lokala errrentan eman nahi da. Bariantearen ondoan. = 948 630 332 (aratzetan 6etatik aitzin).

BERA. 155m²ko pabilloia errrentan eman nahi da. Bidaoa 76. = 948 630 421

LEGASA. 450m²ko nebea alokatzen da. = 629 348 491

LESAKA. Inguru industrialean dagoen 100m²ko bajera errrentan eman nahi da. Bulegoa jartzeko egokia. Sar-

ADOS

- Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajera etab. erosia nahi dira.


© 948 451 841
607 978 656

ADOS

DONEZTEBE
Pisu berriak salgal.
Bigarren eskuko bi etxe.

BERA
Pisu batzuk salgal,
14 milioi Pta.tik hasita.
Bajera 175 m²ko gorakoa
Altzate karrikan

© 607 978 656



tzeko moduan. Prezio integratua. = 948 634 114

LESAKA. Albitur auzoan garajea errrentan eman da. = 600 903 196

LURRAK/ORUBEAK**112 Saldu**

LESAKA. Nabaz auzoan 5.000 m²ko lur eremua salgal. Erakizenetako. = 948 637 903

KORELLA. 1.420m²ko lur eremua etxobalarekin, etakribana salgal. = 948 630 0582

ZERBITZUAK**208 Bertzelakoak**

Animallari-granjak edo behigetziak legalizatzen dira. (Licencia de actividades clasificadas). = 609 364 479

LANA**301 Eskariak**

Adinekoak zaintzeko edo edozein lanerako, neska eskaikintzen da. = 677 742 749

Asteburuetan lan egiteko jangelako zerbitzaria eskaikintzen da = 948 625 422

Emakume batek edozein lanegingo luke, internamoduan ere. = 649 770 304

MANU**AKUTXILATZEAK**

Amarrasun orduan gabe

• 948 630 256
• 656 471 075

LANA**302 Eskaintzak**

IBARDIN. Ostatu batean egunero lan egiteko neska



manelsa

elektrizitate industriala

**Instalazio eta mutua elektrikoak
Mantenimendua
Automatismoak
Iluminazioa**

Amalur 2, behe
Sakalekoia: 686 466 865
31700 ELIZONDO

Artekale 22, behe
Tel. eta faxa: 948 301 025
Sakalekoia: 686 466 866
31195 BERRIOZAR (Nafarroa)

2002ko telefono gida prestatzen ari gara

Partikularren
telefonoak
eta merkatari
eta ofizialeenak

Zure datuak zuzentzeko
edo publizitatea
kontratatzeko, deitu
948 63 11 88
telefonora



behar da. Frantsesa jakitea
behenezko, = 948 630 734
BERA. Sukaldaria behar da
egun erdizantzeko. (9.30eta-
rik 4.30etara), = 948 631 584

MOTORRA 502 Garajeak

BAZTAN Motor

F 948 452 118 • IRURIA

Bigarmen eskuo lehio gauzatuak:
H4, Fiesta XR2 iñegunea,
Sunxi SJ410,
Vantia 2.1TD, Fiesta 1.4 3 air,
Citroën ZX 1.6

MOTORRA

501 Salerosketak

Ford Fiesta XR2I salgai.
350.000 pezeta. NA-AD. =
948 637 526

Citroën Saxo VTS 16V sal-
gai. Egoera onean. Extraau-
ntz. NA-AP. = 689 042 282

Kamionaren dako zorela plati-
forma baskulantea sal-
gai. 11,2 metro. 3 ardatz.

Bumuzko brasoa, aluminioz-
ko kaja. = 649 801 997

Ford Escort 1.6 D salgai.
BI-AV matrikuladuna.
250.000 pezeta. = 948 630
235

Alfa Romeo 75, TUV Spark

derebkoak salgai. = 948 634
180.

27 ardi euren derebkoekin
salgai. 627 019 826

6 hilabeteko astokumea sal-
gai Arantzarr. = 948 634 093

Cocker arrazako zakurku-
meak salgai. = 677 594 892

= 948 637 519

DENETARIK

702 Salerosketak

goa du eta lanabesez betea
dago. = 948 631 212

"Simpsonen" giltzaria. 7
giltzakin, agertu da Lesaka-
ko Hasiergoa ostiruan. (Club
Dia txartela ere badu) = 948
637 519

DENETARIK

703 Bertzelakoak

Ohatze artikulatua, kol-
txarekin salgai. Ia berria.
1,50 metro. = 948 450 640

(Zetalki Zetara)

Egurrezko sukaldea sal-

gal. Hagitz gutti ibila. = 948
627 557

Burdinezko esne garrafa
zaharrak erosten ditzut. 3000
pezeta. = 626 532 452

Haritz Amerikar egur ido-
ra salgai. 40-50 cm-tan moz-
tua 15-20 Trn. = 616 055 371
(eguerditan edo gauez)

ANIMALIAK

602 Saldu/Erosi

Monturako behor hezia,
espaniar arrazakoa, salgai.
= 948 452 297

39 ardi bere denbokoekin sal-
gai. = 948 627 569
20 ardi ernari eta 10 ardi en-

ZUBIONDO JATETXEA

Alasta karrika

BERA NAFARROA

TLF 948 625 472

sagardotegia jatetxea sagardotegia



**BAZTAN
FUNERARIA**

TANATORIO ZERBITZUA

HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
EHORZKETA ZERBITZUAK • TRASLADDAK

Pedro Axular, 6 • ELIZONDO

• 948 580373 • 606 776176

BORTZIRIETAKO HIRI-

HONDAKIN SOLIDOAK

KUDEATZEKO

MANKOMUNITATEA

HASIERAKO ONESPENA ESTATUTUEN ALDAKETARI.

Mankomunitate horien Batzar Nagusiek, 2001eko urriaren 8an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuten. Mankomunitate horien Estatutuen aldaketa hasiera batez onartzear.

Aditzera ematen da expedientea eta aipatutako era-
bakia. Mankomunitatearen Idazkantza, Etxalariko Hemko Elizetan, jendaurrean egonen direla, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bihamarunetik hilabete batetik epean, herriarek edo interesatu legitimoek egoki juzkatzenten dituzten eme-
klamazio, enura eta chartarazpenak egin ahal ditza-
len Mankomunitatearen Idazkantza.

Era berean ikusgarri egonen dira udal mankomunitateko idazkaritza bakotzean: Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesakan.

Etxalamen, bi mila eta bateko azaroaren hamabostean.
PRESIDENTEA, Miguel M. Irigoien Sanzberro

IRACHE MALDAERREKA

FUNERARIA

ZERBITZUAK

Lezka-Donestebe

24 orduko zerbitzua
bilatokian eta
etxeen
presto guzietan

Trasladoak Irúnak,
Donostia, Irungo
orrikoletatik edozem
bemetara

• 900 704704
• 948 637404
• 948 450475

Argazkiak borreskuratzeko, bidali sobrean zuro helbidearekin.



IKER ALTZUGARRAI ZUBIRI
lesakarrak
urtamilean
13ean 9 urte
beteke ditu.
Zorionak Aitor,
ama eta attaren
partekik.



AMAIA ALTZUGURREN MITXELENA
beratarrak
urtamilean
13an 8 urte
beteke ditu.
Zorionak Atxa,
ama eta Ainhoa
aren partekik.



ELIA NEVADOZKO IDOAK
abenduaren
26an 7 urte
beteke ditu.
Zorionak Atxa,
ama eta Ainhoa
aren partekik.



IRAI GULLENKA IRIARTE
beratarrak
hibetzen San
3. urte beteke
ditu. Zorionak
panpina, Ibai,
Atxa eta amaren
partekik.



EIDER ORDOÑEZ AGESTA
irundarrik
urtamilean
1ean 9 urte
beteke ditu.
Zorionak eta
moxu bat Atxa,
ama eta Saio
aren partekik.



JULEN ARANBURU Mikel Jaka
abenduaren
20an urtea bete
du. Aunzit urtez
lehenagusuen
partekik.



IRATXE, TIA LUISITA ETA AITORIK
abenduaren 11, 13
eta 17an urteak bete
dituzte.
Zorionak Unai, Asier, Bixen eta
Maialen partekik.



AINHOA TELLEKTXEA IPARRAGIRRE
abenduaren
24ean 3 urte
beteke ditu.
Zorionak eta
moxu handia
Atxa, ama eta
Narcisoaren
partekik.



OIER ZAPAIN MIGELEÑAN
urtarilaren
14ean 3 urte
beteke ditu.
Zorionak eta
moxu handia
Atxa, ama eta
Narcisoaren
partekik.



MANEX ZAPAIN AMUR
beratarrak
abenduaren
22an 4 urte
beteke ditu.
Zorionak
Atxito, Atxa,
Atxa eta Onintza
aren partekik.



AINHOA TELLEKTXEA ETA IMANOL TELLEKTXEA
ebalaritamek urteak bete
ditu abenduaren
24ean eta
urtamilean 4ean. Zorionek eta
moxuak gurazio eta familiakoen
partekik.



Belen CARRILLO RUIZ
abenduaren
27an urteak
beteke ditu.
Zorionak
moxuak gurazio
eta familiakoen
partekik.
Moxuak.



YUNE INZIANTE MINDEGIA
lesakarrak
urtamilean
15ean 16 urte
beteke ditu.
Zorionak!



AMAIA GARAZO MINDEGIA
beratarrak
abenduaren
24ean 15 urte
beteke ditu.
Zorionak!



JAIOGNI IRAOLA ROZASIK
urteak bete
dituen abendu
aren 27an. Au
pa Maifica, es
poliz agentzen
zaren hirian
eta ospatzear
dugun albatartu!



ENERITZ LANTZ ORTEGA-GODO
1 urteak
beteke ditu
urtamilean 11n.
Zorionak prez
osa. Ea nahi
dizun zeidat
nooztik oport
tzetzen dizuten.



MARTXELO GORRI
arantzarrak
urtamilean San
urteak beteke
ditu. Ongi pase
eguna eta
Zorionak, aran
tzako familiaren
partekik.



MAIDER FAGOAGA EUBI
beratarrak
urtamilean
15ean 5 urte
beteke ditu.
Zorionak eta
moxu bat famili
aren partekik.
Zorionak potok!



ALAITZ AGUILARRAK
urtamilean 7an
7 urte beteke
ditu. Moxu handi bat
Atxa, Atxa eta
Ainhoaren
partekik.
Zorionak potok!



ENEBITZ LOIZANTE ZUBIRIA TELLEKTXEA ETA IMANOL TELLEKTXEA
goiztian
urtamilean
Zorionak
15 urte
beteke ditu.
Zorionak, gua
so, Atxa, Amo
nak, Izebak eta
lehenagusuek.



XABIER BIDAUAARRRE TELLEKTXEA ETA ANDRES ARRATIBEL
igantxean
urtamilean
25an 2 urte
beteke ditu.
Zorionak
familiaren
partekik. Moxu.



LIDIA INDAKOETXEA ETA ANDRES ARRATIBEL
4an 8 urte eta
18an urtea
beteke ditu.
Zorionak
familiaren
partekik. Moxu.



HIRUKOTE HONIEK urtamilean
beteke ditu Zorionak,
familia guztiaren partekik.
Nahi duzuenerako
prestata alari
ederra.



JOXE ANGEL ETA JOSEBA BIDAUAARRRE beratarrak
urtamilean 4 eta 21ean beteke
dituzte. Moxu bana
amatoren partekik.

Navapro
Sistemas de Automatización Industrial

TUBOAK

ZIRI GIDARIAK

GAZTAİN PIKETEAK

HESIETAKO SAREAK

LORATEGI ETA ZERRAKURA MATERIALAK

Eslava, Karmika, 15
• 607 842 709 • 610 836 534
31320 MILAGRO (Nafarroa)

URDAZUBIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE URDAX

LOKALA BAT ERRENTAN EMATEKO LEHIAKETA

Udal honek dei egiten du Dantxarineaiko lehengo Turismo Bulegoa errentan emateko.

- Esleipen modua: Procedura irekia enkantearen bidez.
- Hilabeteko kanona, hasierako prezio gisa: 601,01 € / 100.000 Pta.
- Kontratuaren Iraupena: Bost urte luzagarri.
- Behin behineko fidantza: Bi kuoten emailta.
- Aurkezto beharreko agiria: Baldintza Pleguen adierazten direnak.
- Proposamenen aurkezteko epea: urtamilean 18a bideratze. Ordusak: 9:00etik 13:00etara.
- Proposamen ekonomikoak jendeurren Ireakitza: urtamilean 21a. Ordua: 14:30etan.

Baldintza: Plegua interesatuena eskura dago Udaletxeko idazkaritzan

Urdazubi, 2001.12.31
Alkatea,
Andres Diharasamay Orgambide

ETXALARKO UDALA

UDAL OSTATU ETA JATETXEA ERRENTAN ADJUDIKATZEKO LEHIAKETA

Udal honiek lehiaketa irekiko-deia egiten du. Udaletxeko lehen solairuetan dauden ostatu eta jatetxoa errentan adjudikatzeko.

- Hilabeteko kanona, hasierako prezio gisa: 45.000 pezeta (270,48 euro) gehi BEZA.
- Kontralazioa epea: Lehiakideek eskaintzan zehaztu beharko du. Gehienetan ere hamar urterako izanen da eta gubienetan bortz uterako.
- Behin behineko flantza: 100.000 pta. (601,01 euro) gehi BEZA.
- Aurkezta beharreko agiria: Baldintza Pleguen adierazten direnak.
- Proposamenen aurkezteko epea: 27 egun naturalsik, iraganki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hastea, azken eguneko hamalaugarren artea. Epea lanurbata edo jaiegunenak bokatzera bidea, hurrengo lehen laneguneko hamalaugarren artea luzatuko da.
- Eskaintza ekonomikoak Ireakitza: Proposamenen aurkezteko epea bukatu eta biharamunetik hastea borzgarren lan egunean, eratsuldeko 7:00etara. Egin hau lanurbata bidea, hurrengo lehen lanegunera ateratzera da.
- Baldintza Plegua interesatuena eskura dago Udaletxeko idazkaritzan
- Proposamenen ereduak: Nafarroako Aldizkari Ofizialean Etxalarren, bi mila eta bateko abenduaren hamanean:

ALKATEA
Miguel M. Irigien Sanzberro

tti pi-tt aparen


zerbitzu komertzialak

FOILETOAK

Bi orrikoak, hiru orrikoak, koloretan eginak, zuribeltzean, offset-ean edo fotokopietan...



KARTELAK



Neurri, kolore eta paper desberdinatan

ALDIZKARIAK



Komeni zaizun neurri eta kopuruan, zure gustora diseinatuak

INPRIMAKIAK



Kartazalak, buzoiratzeko paperak, egutegiak, errekordatorioak

LAN


KOMERTZIALAK

Kartelak, boletoak, fakturak, bisita txartelak, aldizkariak, egutegiak, liburuak, katalogoak, kartazalak eta paperak, buzoiratzeko publizitate orriak, inprima-kia...

TTIPI-TTAPA FUNDazioAk
zerbitzu egoki eta profesionala eskaini nahi die bere lagun eta bezorei. Horretarako sortu du **KULTURKARI**, zuk behar duzuna momentu batean egiteko, zure gustura diseinatua eta merke. Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!



948631188



KULTURKARI

MUEBLES AMETS

Sarrera BERATik da

Alkaiagako industrialdean

Sastrin karrika, 3.2 - 3.4

31789 LESAKA

Tfnoa. 948 630 537

Fax. 948 631 443

Larunbat arratsaldetan irekia



4.000 m²ko erakusketa mobleak ikusteko



- *Sukaldeak* • *Egongelak* • *Logelak* •
- *Bainugelak* • *Altzariak* •

